2018ko ekainaren 1a | 16. urtea | 723. alea
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

anboto

TOKIKOM

Aste osoan zehar Atxondoko herri eskolako guraso eta ikasleek planto egin diote catering zerbitzuari

Atxondo | Eskolan bertan janaria prestatzeko sukaldea izatea eskatzen dute gurasoek, Berton Bertokoa dinamikaren baitan. • 5

Uda gehigarria

Euskaraldiaren olatua Durangaldera heldu da

Durangaldeko hainbat eragile, norbanako eta politikarik babesa adierazi zioten Euskaraldiari eguaztenean, Durangoko Ezkurdin. Herririk herri sortutako batzordeen bidez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra hamaika egun euskaraz bizitzeko ariketa prestatuko dute. • 2-3

LEHIOR ELORRIAGA

Durangaldeko V. Kopla Txapelketa jokatuko dute Elorrion, zapatuan

Durangaldea | Hamahiru bertsolarik parte hartuko dute gaztetxean jokatuko den txapelketan. Amaia Ugalde eta Alnhoa Urien izango dituzte gai jartzaile.

27. orrialdean

CEPA HHI DURANGO ERMUA-ZORNOTZA
DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

IRAKASKUNTZA ARAUTUA
• Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
• Hasierako irakaskuntzak.
• DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA
• Unibertsitaterako sarbide probak.
• Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
• Informatika ikastaroak.
• Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).

MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net
MATRIKULA-EPEA: Ekainaren 15etik ekainaren 29ra.
Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

Ezkurdi plazan aurkeztu dute Euskaraldia Durangaldean.

Euskaraldia indartsu dator Durangaldera

Durangaldeko batzordeek Euskaraldiaren aurkezpen bateratua egin dute Durangoko Ezkurdi plazan

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Hizkuntza ohituretan eragitea. Horixe da Euskaraldia ekimenak jomugan jarri duen helburua. Asmo hori errealitate bihurtzeko, instituzioen eta herri ekimenaren arteko elkarlana bultzatzen ari dira. Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak abiatutako proiektua herririk herri lantzen hasi dira Euskal Herri osoan. Dagoeneko 300 herrik egin dute bat ekimenagaz.

Durangaldean ere batzordeak sortzen ari dira, 11 egun euskaraz bizitzeko ariketa martxan jartzeko. Ildo horretatik, indar txikiak batuz Durangaldean Euskaraldia abiatzeko aurkezpena egin dute. Abadiñok, Atxondok, Berrizek, Durangok, Elorriok, Ermuak, Iurretak, Izurtzak, Mallabiak, Mañariak, Garaik, Otxandiok, Zaldibarrek eta Zornotzak dagoeneko eman dute izena Euskaraldian parte hartzeko. Hainbat herritar eta udal ordezkari bildu ziren ekitaldira. "Gaurko aurkezpenean, Euskaraldian sinesten dugun Durangaldeko herritarrak batu gara; batzordeetan lanean hasi garen herritarrak, Ahobizi edo Belarriprest izateko gonbidapena gogotsu hartu duten pertsonak, euskalgintzako kideak, gurasoak, teknikariak, ziengotziak", azaldu du Larraitz Zarandona herrietako batzordeen izenean. Orain, herri bakoitzeko batzordeak Euskaraldiaren lanketan bere erritmora lan egingo du.

Ahobiziek euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz berba egiteko konpromisoa hartuko dute

Belarriprestek euskaraz ulertzen dute, eta gainerakoei euskaraz aritzeko gonbita egingo diete

'11 egun euskaraz'

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, hamaika egunez ariketa sozial bat egingo dute. Ekimen horretan rol bi izango dira protagonistak: Ahobiziak eta Belarriprestak. Ahobiziek euskaraz ulertzen duten guztiei euskaraz berba egiteko konpromisoa hartuko dute, eta ezezagunei lehen hitza euskaraz egingo diete. Belarriprestak, aldiz, euskaraz ulertzen duten pertsonak izango dira, eta gainerakoei euskaraz aritzeko gonbidapena egingo diete. "Agian ez dute beti euskaraz erantzuteko gaitasunik izango, erdaraz ere erantzun ahalko dute, baina Ahobiziei euren rola betetzen lagunduko diete", azaldu du Larraitzek. Rol horiek identifikatzeko, txapak banatuko dituzte.

Hamaika egun horietan hizkuntza ohiturek aldaketa erreala izan dezaten, aurrelan handia dagoela egiteko aitortu dute Euskaraldiko kideek. "Urte osoan prestakuntzan eta sentsibilizazioan egin beharko da lan, hizkuntza ohituren inguruan hausnartu eta azaroaren 23tik abenduaren 3rako egunak prestatzeko", azaldu du Zarandonak.

Esperientzia positiboak

2015ean hasita, Euskaraldiak Donostiako Egia auzoan, Agurainen, Lasarte-Orian eta beste herri batzuetan euskaldunak aktibatzeko jarri zituzten erronkak ditu abiapuntu. Lasarte-Oriakoan sortu zituzten Ahobizi eta Belarriprest figurak, eta erabilera neurketak egin zituzten, gainera, euskaldunak aktibatzeko proiektuaren eragina neurtzeko: erronkak iraun artean, 20 puntuz igo zen euskararen erabilera.

“Euskaraldia eta halako ekimenak garrantzitsuak dira euskara bultzatzeko”

DURANGO • J.G.

Asun Lopez Urrike liburu-dendaren jabea da Durangon. Euskaldun berria da eta Berbalagun ekimenean dihardu aspalditik. Euskaraldiagaz bat egingo du Belarripresten txapa jarrita.

Zelan ikasi duzu euskara?

Orain 15 urte, nire semea Landako eskolan zebilela euskara ikasten hasi nintzen. Semeak euskaraz ikasten zuen eta nik ere berba egin gura nuen. HABEk gurasoentzako ikastaroa antolatu zuen eta izena eman nuen.

Berbalagunen ere bazabiltza.

Orain hamar urte Berbalagunen izena eman nuen, eta talde berean jarraitzen dut. Martitzenetan elkartzen gara, 15:00etatik 16:30era. Kafe bat hartzen dugun bitartean, euskaraz mintzatzen gara. Beste irteera batzuk ere egiten ditugu.

Euskaraldia badator. Belarriprest eta Ahobizi rolei zer deritzezu? Parte hartuko duzu?

Euskaraldia eta halako ekimenak garrantzitsuak dira euskara bultzatzeko. Nik Belarripresten txapa jarriko dut. Dendan saiatzen naiz euskaraz egiten, baina batzuetan berbak falta zaizkit. Hala ere, dena ulertzen dudanez, lasai egin diezadakete euskaraz.

“Berberea naiz eta uste dut horregatik ere lotura berezia dudala euskaragaz”

IURRETA • J.G.

Mohamed Larbi berbereak fruta-denda bat jarri zuen Iurretan orain zortzi urte. 'Egunon' bategaz eman dio ongietorria kazetariari bere dendan. Amankomunazgoak Euskaraldiaren inguruan kaleratutako ikus-entzunezkoan ere parte hartu du.

Euskaraz moldatzen zara. Noiz ikasi duzu?

Jendeak zer edo zer eskatzen didanean dena ulertzen diet. Ermuan bizi naiz. Bertara heldu nintzenean, gutun bat bidali zidaten hilabetez euskara ikasteko, abuztuan, eta animatu egin nintzen. Ikastaro hartako irakaslea laguna dut gaur egun ere. Oinarrizko euskara ikasi nuen. Euskara ikasten gozatu egiten dut. Dendara denetik etortzen da. Ni berberea naiz. Gure hizkuntza dugu, eta uste dut horregatik ere lotura berezia dudala euskaragaz.

Hizkuntza mordoa ulertzen dituzu.

Dendara denetik etortzen da. Afrikarrek frantsesez egiten dute, beste batzuek ingelesez, arabieraz, berbereraz zein euskaraz.

Zer deritzozu Euskaraldiari?

Nik berbaz oinarrizko euskara dudan arren, gustuko dut jendeak euskaraz egitea dendara datorrenean. Ulertzen diet, eta moldatzen gara.

“Ekimen hau oso interesgarria da, hizkuntza ohiturak aldatzea beharrezkoa delako”

ELORRIO • J.G.

Mentxu Alonsok erretiroa hartu zuenean euskara ikastea jarri zion bere buruari helburu. Urte bian aurrerapauso handia eman du.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Palentzian jaio nintzen. Beti izan dut euskara ikasteko gogoa, baina, lana dela-eta, sekula ez dut astirik izan. Orain hiru urte erretiroa hartu nuen, eta euskara ikasteko sasoia zela pentsatu nuen. Orain urte bitik hona euskaltegira noa, astean egun bi, 5 ordu guztira. Etxerako lanak ere egiten ditut. Berbalagunen ere astean behin elkartzen gara. Iaz, Arantzako barnetegira joan nintzen, nire euskara hobetu guran.

Euskaraldian parte hartuko duzu?

Jakina. Nik Belarripresten txapa jantziko dudala uste dut. Baina euskaraz berba egiten saiatuko naiz. Jendeak egin diezadala euskaraz. Ekimen hau oso interesgarria da, hizkuntza ohiturak aldatzea beharrezkoa delako. Gure harremanetan euskara gehiago erabiltzen saiatu behar gara. Euskaraz 365 egunetan bizitzeko ekimena bultzatu gura dute, eta helburu horregaz bat nator. Agian ez dut dena zuzen esango, baina ni beti nago euskaraz egiteko prest.

Gurasoak haurrekin egoteko barneko espazio finko bat eskatu du Altzoan hazkuntza taldeak

Ardura eta esperientzia komunen inguruan batutako ama taldea Zelaieta Zentroko sarreran batu izan da neguan

Saioa Agirre, Jone Arginzoniz, Latxe Uranga, Aitziber Zearreta eta Estela Pradas euren seme-alabekin, neguan bilgune nagusia izan duten Zelaieta Zentroko sarreran.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zelaieta Zentroko sarreran eserita daude bost ama, euren haurrak inguruan jolasean dabiltzala. Neguko egun askotan errepikatu den irudia da. Azken urtebetean antzeko bizipen eta errealitateen inguruan apurka batzen joan den ama taldeak elkartzeko eta talde moduan garatzeko espazio aproposago bat gura luke, baina, diotenez, momentuz ez dute beste aukerarik. Udaleko ordezkariekin izandako batzarretan ez diete irtenbiderik eman oraingoz.

Joan zen neguan azaleratu zen espazio baten beharrizana. Haurrak altzoan egotetik lurrean ibiltzera pasatu zirenean. Zelaieta Zentroan gela bat eskatu eta txiki batera bideratzen zituzten. "Gela txiki batean hamar haur sartuta. Imajinatu!", gogoratu du Aitziber Zearretak. Hura ez zen bideragarria, eta ludoteka haurrentzat bakarrik denez —guraso barik— Zelaieta Zentroko sarreran batzen hasi ziren.

"Guretzat aberasgarria da talde hau, eta batzeko aukera eskaini gura genieke beste familiei"

Iazko irailean udaleko kultur eta kirol arduradunagaz batu ziren. Astea behin ordu bitan batzeko gela bat eta 0-6 urte arteko umeak dituzten familiak batzeko herrira zabalik egongo zen espazio bat bideratzea izan zen eskaeretako bi. Herrian sumatzen dituzten bestelako beharrizanak ere jakinarazi zituzten: material naturalagaz egindako umeendako jolasak, adibidez. "Jarrera positiboa" jaso dute udaletik, baina, momentuz, irtenbiderik ez.

Talde lez garatzeko gunea

Batzeko espazio apropos baten beharrizanaren muinean talde moduan garatzeko nahia dago. Ardura multzo eta hezkuntza eredu komun batek batzen dituen taldea da eta "esperientziak elkarbanatuz elkar elikatzeko gunea" litzateke, Estela Pradasen arabera. Ideia eta helburu horren bueltan batu dira Altzoan Hazkuntza Taldea izenagaz. "Guretzat oso aberasgarria da talde hau. Ama moduan, emakume moduan... Gure taldea zabaltzea eta herriko beste guraso eta familiei batzeko aukera eskaintzea gura genuke. Elkartea sortzeko eskatu digute, baina horretarako batu egin behar dugu eta batzeko espazio bat behar dugu", azaldu du Saioa Agirrek. "Udalak baditu espazioak.

"Zornotzako Udalak baditu espazioak herrian. Ez da askorik behar gu eroso egoteko"

Guk ez dugu obrarik eskatzen. Herrian lehendik dagoen espazioren bat aprobetxatzea nahikoa litzateke. Ez da askorik behar gu eroso egoteko", gehitu du Latxe Urangak.

Udaleko zergak eta tasak bere horretan mantenduko dituzte datorren urtean

ZORNOTZA • J.D.

Urtea amaitzeko sei hilabete falta diren arren, joan zen barikuko udalbatzarrean 2019ko tasak eta zergak onartu zituzten, aho batez. "Gaurtik aurrera aurrekontuak lantzen hasiko gara", azaldu zuen Andoni Agirrebeitia alkateak.

Zerga eta tasa guztiak izoztu egin dituzte. Osorik edo ia osorik izozten dituzten seigarren aldia da jarraian. 2014an, 2015ean eta 2018an bere horretan mantendu zituzten, 2019an egingo duten moduan. 2016an eta 2017an uren eta saneamenduen gainekoak bakarrik igo zituzten. "Udalaren egoera ekonomikoak ahalbidetzen digu horrelako erabakiak hartzea", argitu zuen Agirrebeitiak.

Irabazleen argazkia.

Boroa jatetxea eta Uranga taberna, pintxo lehiaketako onenak

ZORNOTZA • J.D.

Boroa jatetxekoek Jan Alai lehiaketako pintxorik berritzaileenaren saria jaso dute. Epaimahaiak ematen duen sari horregaz 1.000 euro irabazi dituzte. Pintxo herrikoirik onena, berriz, herritarren bozketa bidez izendatua, Uranga tabernako 'Gorringoa ortuen' pintxoa izan da. Horiek ere 1.000 euro irabazi dituzte. Lehiaketako 10 pintxorik onenen zerrenda ere osatu dute eta Uranga tabernarena dago lehenengo.

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko ekainaren 1a
16. urtea - 723. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00225

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO AMOREBIETA - ETXANO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Afrikako zinema emanaldiagaz ekingo diote Derandein Asteari

Saharaz hegoaldeko Afrikan hainbat egitasmo garatzen dituen fundazioak askotariko ekintzak prestatu ditu aste osorako

Hezkuntza eta genero berdintasuna dira euren egitasmoetako lan ildo bi.

ZORNOTZA • J.D.

Derandein Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialdeetan lan egiten duen fundazioa da. Hango errealitateaz herritarrak informatzeko eta sentsibilizatzeko, ekitaldiz beteriko astea antolatu dute ekainaren 4tik 10era Zornotzan. Aurtengoa bigarren aldia izango da.

Afrikaldia izeneko zinema emankizunagaz hasiko dute Derandein Astea. Ekainaren 5ean eta 7an, 18:00etatik 20:00etara, film labur bi eskainiko dituzte egun bakoitzean Zelaieta Zentroko auditoriumean eta, ostean, zine foruma egingo dute. Horrez gainera, aste osoan zehar 'Afrika 2030' izeneko erakusketa egongo da ikusgai konferentzia aretoan.

Datorren asteko barikuan Derandeinek bere proiektuen berri emango du 20:00etan hasiko den aurkezpenean. Esaterako, Zornotzatik Mundura egitasmoaren bidez, Kenyako zenbait komunitatetan hainbat lan egin dituzte oinarrizko hezkuntza hobetzeko. Etorkizunera begira hainbat asmo dituzte eremu hartan: ikasgela batzuk konpontzea, maisuak kontratatzea eta guraso zein eskolentzako tailer hezigarriak antolatzea, besteak beste. Ekainaren 9rako,

Ekainaren 8ko aurkezpen ekitaldian fundazioaren egitasmoen berri emango dute Zelaieta Zentroan

18:00etan, Udako Jai Afrikarra antolatuko dute Zelaieta parkean. Bertan, askotariko ekintza eta jokoak egongo dira umeentzat.

Azkenik, Zornotza Mendi Taldearen laguntzagaz, martxa bat antolatu dute domekarako. 10:00etan hasiko da, Jauregibarrian. Ibilbide bi daude eta bietan fundazioari izena ematen dion Derandein auzotik igaroko dira.

47 umek herriko plazan jan zuten martitzenean.

Gurasoek egindako lanagaz eta herritarren laguntzagaz, uko egin diote jantoki zerbitzuari

Atxondoko Eskolan astebeteko plantoa egin diote catering zerbitzuari. Astelehenaz geroztik, gurasoak izan dira sukaldari, eta baita umeen zaintzaile ere eguerdietan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berton Bertokoa elkarteak ekintza ugari prestatu ditu Durangaldeko hainbat eskolatan, bertako eta sasoiko produktuak umeei eskaintzeko asmoz. Atxondon, esaterako, astebeteko plantoa egin diote catering zerbitzuari eta, horren ordez, gurasoak izan dira astebetez sukaldari. "Astebeteko planto hau egitea oso garrantzitsua zen guretzat. Honek oihartzun garrantzitsua izango du catering zerbitzuan. Esaterako, diru zati bat itzuli beharko dute, eta Atxondon gurasoak mugitzen gabiltzala konturatuko dira", adierazi dute Udane eta Larraitz Agirrek. Hala ere, jantokian astebeteko plantoa egitea erraza ez dela eta hainbat sakrifizio egin behar izan dituztela aitortu dute Atxondoko Guraso Elkarteko kideek. "Atxondon zortea dugu, guraso elkartea talde handi eta dinamikoa delako; bakoitzak ahal duen moduan egiten du bere ekarpena. Batzuk, esaterako, oporrak hartu ditugu txandak egiteko, eta beste batzuk egun guztian hemen daude dena antolatzen", adierazi du Udane Agirrek.

Atxondoko guraso elkarteko kideek txandak egin dituzte bazkariak prestatu eta emateko

Goizean goiz hasi dira asteon lanean Atxondoko gurasoak, bazkaria prestatu, mahaiak jarri eta 12:30erako, umeak eskolatik irteten direnerako, dena prest izateko. Aste guztian zehar bertako eta sasoiko produktuak jan dituzte Atxondoko umeek. "Erosketak herriko komertzioetan egin ditugu eta produktuak inguruko ekoizleei erosi dizkiegu. Bertako eta sasoiko produktuekin bazkari osasuntsu eta gozoak egin daitezkeela erakutsi dugu", esan du Larraitz Agirrek.

Gurasoen borondate eta lanerako gogoaz gain, atxondar askoren laguntza izan dute plantoa egiteko. Esaterako, eguaztenean Akebaso jatetxeko sukaldariak prestatu zuen jatekoa; eta gaur, Etxoste jatetxekoek emandako txahalagaz gisaua egingo dute. "Inguruko jendeak asko lagundu digu eta herria gugaz daukagula badakigu", aitortu du Udane Agirrek. "Gainera, herriko politikarien babesa ere badugu. Hala ere, hitzetatik ekintzetara pasatzeko ordua da, eta lehenbailehen sukalde bat jarri behar da", amaitu dute.

Atxondoz gain, Maiztegin, Zabalarran, Abadiñon eta Zaldibarren bertoko produktuekin egindako meriendak eta dastaketak eskaini dituzte aste honetan.

Aste guztian zehar bertako eta sasoiko produktuak jan dituzte Atxondoko umeek

Izurtzako plazan dagoen jolasgunea handitu egingo dute aurtengo urtean, aurrekontuetako 14.000 euro erabilita

Txintxaun berriak gehituko dizkiote egungo jolasguneari; lanak esleituta daude eta ahalik eta arinen hastea da asmoa

IZURTZA • **JOSEBA DERTEANO**

2019ko aurrekontuak onartu zituzten Izurtzako azken udalbatzarrean. 651.851 eurokoa da zenbateko osoa. Hainbat inbertsio daude eta plazako jolasgunea handitzea da horietako bat, Tokiko Agenda 21eko batzarrean gurasoek egindako eskaerari erantzuteko.

Batzar berean aukeratu zuten zein jolas jarri, gurasoen iritzia kontuan hartuta. Txirrista bat, etxetxo bat eta bueltak ematen dituen jolas bat gehituko dizkiete gaur egun daudenei. Zorua, berriz, erabat aldatuko dute. Gune berrian jarriko duten zoru berezia jarriko dute gaur egungo jolasgunean ere, espazio osoari homogeneotasuna emateko. Lanak Bermeosolo enpresari esleitu dizkio udalak, eta ahalik eta arinen hastea da asmoa.

Tokiko Agenda 21eko batzarretan gurasoek egindako eskaerari erantzun gura diote jolasguneko inbertsioa eginda.

Udalaren jabetzakoa den Txakurzulo baserrian ere hobekuntzak egingo dituzte aurten. Iazko urte amaieran egindako ikuskapen teknikoak gabezia batzuk azaleratu zituen eta, horiek konpontzeko, aurrekontuetako 51.400 euro erabiliko dituzte. Zehazki, eraikin osoko leihoak aldatu eta habe batzuk konponduko dituzte pipia dutelako. Gaur egun, etxebizitzetarako kofratuak egiten dituen enpresa batek alokairuan du eraikin hori.

Leihoen aldaketa

Beste inbertsio bat eginda, plaza ondoko hiru lokaletako —jubilatuen elkartea, Argintxu elkartea eta osasun zentroa— leihoak aldatuko dituzte, 30.000 eurogaz. Gaur egungo leihoak meheak dira eta ez diote berotasunari behar den moduan eusten. Lanak Abadiñoko Leihoak enpresari esleitu dizkiote eta ekainean edo uztailean burutuko dituzte.

Erabilera anitzeko gunea

Gaur egun gazteleku moduan erabiltzen den espazioa erabilera anitzeko gune bihurtu gura du udalak. Aurten proiektua egitea da asmoa, datorren urtean lanei ekiteko. Proiektua egiteko, 5.400 euro gorde dituzte.

Azkenik, 2019ko aurrekontuetan 61.000 euroko diru atala Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitera bideratu dute.

Erleen erakusketa antolatuko dute domekako azokan

10:00etan hasiko da nekazaritza eta artisautza azoka

MALLABIA • **JOSEBA DERTEANO**

Domekan nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute pilotalekuan. 10:00etan hasita, askotariko 17 postu jarriko dituzte. Toki berean erleen inguruko erakusketa bat ere antolatuko dute. Gainera, erleen argizaria erabiliz, kandelak egiteko tailerra egingo dute umeentzat. 12:00etan dantza saioa izango da eta, ostean, Mallabia Kirol Taldeko Juan Carlos Perez omenduko dute urteetan egindako lanagatik.

Askotariko 17 postu izango dira.

Piratak Eguna eta U2 tabernaren urteurrena ospatuko dituzte, bihar, egun osoko egitarauagaz

MAÑARIA • **JOSEBA DERTEANO**

Behin liga amaituta, Athletic futbol klubeko Piratak lagun taldeak 7. Piratak Eguna ospatuko du, bihar, Mañarian. Aurtengoa ospakizun berezia izango da, U2 tabernak etapa berriko hamargarren urteurrena ere ospatuko duelako, hain zuzen.

11:30ean haurrentzako puzgarriak jarriko dituzte plaza inguruan. Elektrotxaranga batek jai-giroa jarriko du herrian, eguerdian bazkari herrikoian batu arte. 17:30ean pultsu txapelketa hasiko da, DJ Bekosueren musikak lagunduta. Ospakizun eguna musikagaz agurtuko dute: Durangaldeko

Storm, Sermond's, The Wilsons eta Suzio 13 taldeek kontzertua eskainiko dute

Storm eta Sermond's taldeekin batera, The Wilsons eta Suzio 13 taldeak zuzenean arituko dira.

2019an organikoa birziklatzen hasiko dira Durangon, bilketa kontratua berritu eta gero

Kaleak garbitzeko eta hondakinak biltzeko kontratu berria beste 10 urterako izango da, eta langileak subrogatuko dituzte

2019 erdialderako aurreikusi dute kontainer marroiak kalean ipintzea. Eskualdean, Durango bakarrik geratzen zen sailkapen horretara batzeko.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Durangon 2019an hasiko dira organikoa birziklatzen. Kale garbiketarako eta hondakinen bilketarako kontratu berriaren lizitazioa onartu zuten martitzeneko bilkuran. Interesdunek izena eman beharko dute ekimenean. Neurriagaz, %60 birziklatzeko helbururantz lan egin gura du gobernu taldeak.

Egungo kontratua 2006an onartu zen, 10 urterako, eta luzatu egin da. Kontratu berria ere 10 urterako izango da –beste bi luzatzeko aukeragaz–, eta 49 langileak subrogatu beharko ditu lehia irabazten duen enpresak. Udalak 34 milioi euro erabiliko ditu urte guztiotan. Hobekuntzen artean, kaleak eta eskolak garbitzeko maiztasuna handituko da, arratsaldez kaleak birpasatuko dituzte, jai ekintzetarako lan berezia aurreikusiko dute, eta errekak ere garbituko dituzte.

EAJko Goiztidi Diazek proiektu garrantzitsua dela esan du, eta langileen baldintzak mantenduko direla nabarmendu du. PSE-EEko Pilar Riosek azaldu du kaleen garbitasun maila eta maiztasuna indartuko direla, eta organikoa batzen hasteari balioa eman dio. PPko Fran Garatek ere babesa erakutsi dio proiektuari.

Parte-hartzea eskatzen

Herritarren eta langileen parte-hartzea ez sustatzea kritikatu du oposizioak. 2020an birziklapenaren %60ra heltzeko Europako gomendioa ez dela helburu lez jasotzen salatu du EH Bilduko Dani Maeztuk, eta organikoaren ezarpena "herritarren erantzunaren arabera" garatzea ez du begi onez ikusi.

Hobekuntzen artean, kaleak eta eskolak garbitzeko maiztasuna handituko da

Herriaren Eskubideako Julian Riosek kontratuagaz "herritarren erabakia 12 urterako hipotekatuko" dela ohartarazi du. Aparte, gastuaren 34 milioi euroetatik 4 etekin enpresarialerako izango direla dio, eta gestio zuzena aldarrikatu du.

Udalak Durangoko argiteria berrituko du 30 kaletan, 83.000 euro inbertituta

DURANGO • M.O.

Durangoko Udalak 83.000 euro inbertituko ditu kaleko argiteria berritzeko. Sei aginte-koadro berrituko dituzte, eta 30 kaletako 530 luminariari eragingo die aldaketak. Hauek izango dira hobekuntza igarriko duten guneak: Aramotz, Askatasun-Oiñiturri-Herriko Gudarien, Montevideo-Arandoño Torre, Antso Estegiz-Santasusanoste, Hegoalde eta Tabirako parkeko zonaldea. Aitziber Irigoras alkateak esan du "funtzionamendu ona bermatzea eta segurtasuna optimizatzea" gura dutela.

Azkenaldian hainbat argi etenaldi egon dira. Herriaren Eskubidea alderdiak mozio bat aurkeztu zuen osoko bilkuran, neurriak hartzea eskatzeko.

Landakon izango dira jolasak.

Puzgarriak ipiniko dituzte Landakoko igerilekuetan

DURANGO • M.O.

Landakoko igerilekuak haurparke bihurtuko ditu udalak egun zehatz batzuetan: ekainaren 2an eta 16an, eta uztailaren 14an eta 28an. Bertan jolastu gura dutenek aurretiaz eman beharko dute izena. "Umeentzako aisialdi eskaintza handitu gura dugu, eta, bide batez, igerilekuak familiek gozatzeko leku bihurtu", esan du Pilar Rios alkateorde eta Durango Kirolakeko presidenteak.

Landako II kiroldegiko akatsengatik erreklamazioak eskatuko ditu udalak, bide judiziala erabilita

EH Bilduk informatu du kiroldegia aste biko eperako zarratu beharko dela laster, 60.000 euroko obra bat egiteko

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Landako II kiroldegia eraiki zenetik hainbat arazo sortu dizkio udalari, urteotan akatsak eta matxurak agertu izan direlako. Hasierako obragaz lotura dutela uste dute; hau da, lan haiek ez zirela behar bezala egin. Horregatik, urteotan egin behar izan dituzten konponketen ardura instalazioak eraikitzeko adjudikazioa lortu zuen enpresarena dela uste dute. Orain arte, erreklamazioak ohiko bideetatik egiten saiatu dira udaleko ordezkariak, baina emaitza onik eman ez dutenez, bide judiziala hartzea erabaki dute. Durango Kirolak erakunde autonomoko presidente Pilar Riosek eta gerenteak adostuta jorratuko dute prozesu hori.

Martitzeneko osoko bilkuran eman zuen gobernu taldeak erabaki horren berri, EH Bilduk gaia lantzeko aurkeztutako mozio baten harira. Alderdi horrek hainbat informazio zabaldu zuen egun bat lehenago, prentsaurreko bidez. Hasteko, kiroldegia aste biko epean zarratuta egongo dela laster, sabaia konpontzeko egin beharreko lanen eraginez. Obra horrek 60.000 euro kostako duela ohartarazi zuen EH Bilduk, eta hori orain artekoari gehitu behar zaiola. 2006ko obren esleipena 8,8 milioi eurokoa izan zen, eta 12,3ra heldu zen azkenean. 2013an 389.000 euro erabili zirela dio alderdiak. "2018an gastu hau noraino igo den ezin dizuegu esan, gobernu taldeak ez digulako datua eman, eskatu arren", zioen Eider Uribe zinegotziak. Konponketak hainbat gunetan egin direla azaldu zuten: eguzki-paneletan, ur-harguneetan, hoditerian, klorometroetan, baldosetan... "Bere garaian gauzak ondo egin baziren, gaur ez ginen egoera honetan egongo", esan dute. EH Bilduk abenduan ere aurkeztu zuen antzeko mozio bat.

EH Bilduko Jon Bingen Landabidea, Eider Uribe eta Ion Andoni del Amo, astelehenean.

Ardura instalazioak eraikitzeko adjudikazioa lortu zuen enpresarena dela uste dute

Gorka Frailek 20 urte daramatza kartzelan, eta etxeratzeko eskatuko dute

Fraileri minbizia topatu zioten 2015ean, eta, horregatik, etxeratzeko eskatu izan dute berak eta bere ingurukoek

DURANGO • M.O.

Gorka Fraile preso durangarrak 20 urte daramatza kartzelan, eta bihar egun osoko jardunaldia prestatu dute bere senide eta lagunek, presoaren etxeratzea eskatzeko. 11:30ean haurrentzako antzerkia egongo da Plateruenean, 13:00etan mosaikoa Santa Anan, 14:30ean bazkaria antzokian, eta ostean Anje Duhalderen kontzertua bertan.

Fraile Badajozeko (Extremadura, Espainia) espetxean dago. 2015ean mingaineko minbizia topatu zioten, eta, horregatik, etxeratzeko eskatu izan dute, berak epaitegietan eta bere ingurukoek kalean.

Azken urteetan mobilizazio ugari egin dira Fraileren alde.

Merkataritza bultzatzeko, martxan da deskontu bonuen kanpaina

20, 10 eta 5 euroko deskontuak aplikatzeko 20.000 txartel banatuko dituzte

Eguaztenean Iurretako udaletxean aurkeztu zuten 'Herriko dendetan erosi; zuk irabazten duzu, Iurretak irabazten du' kanpaina.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako merkataritza bultzatu guran, deskontu bonuen kanpaina jarri du martxan udalak, Dendak Bai elkartearen laguntzagaz. 20.000 *arraspatu eta irabazi* txartel banatuko dituzte herriko komertzioetan. Erosketa bakoitzeko txartel bat banatuko diote erosleari. Txartelean arraspatuta, 20, 10 eta 5 euroko deskontuak jaso daitezke. *Arraspatu eta irabazi* txartelen truke

20.000 'arraspatu eta irabazi' txartel banatuko dituzte herriko komertzioetan

HAZen jaso daitezke deskontu bonuak. Bestalde, parte-hartzaile guztien artean 100 euro zozkatuko dituzte.

Alex Palacios Dendak Bai elkarteko presidenteak azaldu duenez, mota honetako kanpainekin Iurretako merkatarien bezeroak fidelizatzea dute helburu. "Kanpaina hauek ez dute berehalako eraginik, baina apurka-apurka bezeroa fidelizatzen dute", dio Palaciosek. Iñaki Totorikaguena alkateak gogoratu duenez, iaz herriko argazki zaharrekin diseinatutako tazek "arrakasta itzela" izan zuten bezeroen artean.

Sagardozaleak, iazko ekitaldian.

Sagardo Eguna ospatuko dute Garain, Trumoitte elkartearen eskutik

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Ekainaren 9an Sagardo Eguna ospatuko dute Garain, Trumoitte kultur elkartearen eskutik. 19:00etan hasiko da jaialdia, eta DJ Bull ekarriko dute musika ipintzeko. Beraz, jai-giroa sortuko da, sagardoaren eta musikaren bueltan.

Garaiko lagun talde batek Gipuzkoako sagardogile baten sagar bilketan parte hartzen du irailean, hari laguntzeko. Eta, trukean, orain sagardoa Garaira ekartzen du. Beraz, garaitarrek batutako sagarrekin egindako sagardoa dastatuko dute ekainaren 9an. Edalontzia bost eurotan salduko dute, gura beste sagardo edateko.

1,2 milioi euro inbertituko dituzte futbol-zelaia berritzeko eta gimnasioan estalki berria jartzeko

Mendiolako errepidea ere konponduko du Abadiñoko Udalak aurten, eta Matienako Trañabarren kaleko txintxaunak estali. Obra hauek guztiak gauzatzeko, 1,6 milioiko kreditu aldaketak gobernu taldearen botoekin egin du aurrera

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Udalbatzak 1,6 milioi euroko kreditu aldaketa onartu du Astolako futbol-zelaia berritzeko, gimnasioan estalki berria jartzeko, Mendiolako errepidea konpontzeko eta Matienako Trañabarren kaleko txintxaun gunea estaltzeko (Pino plaza). Gobernu taldeak —Abadiñoko Independienteak eta EAJ— bozkatu du alde. EH Bilduk, berriz, lan horiek "beharrezkoak" direla onartu arren, ezezko botoa eman du, "ez delako ezer eztabaidatu eta etorkizuna hipotekatuko delako". Gai hauek batzordean aztertzea eskatu du EH Bilduk, "lehentasun zerrenda bat egitea eta horren arabera obrak gauzatzea", hain zuzen.

Futbol-zelairako, ia milioi bat

Aurten egin gura dituzten obra hauetarako, azken urteetan pilatutako soberakina erabiliko dute. Zelai artifiziala jarriko dute Astolako futbol-zelaian, "maizago erabiltzeko aukera izateko". Argiteria berria ere jarriko dute eta lau aldagela egokitu; partiduen emankizunetarako led teknologiadun pantaila ere jarriko dute. Guztira, 900.000 euro inbertituko dituzte.

Bestalde, Abadiñoko Udalak 300.000 euro erabiliko ditu Astolako gimnasioan estalki berria jartzeko. Beste horrenbeste inbertituko dute Mendiolako errepidean harri-lubeta bat jartzeko. Hartara, errekak errepidea hondatzea saihestu gura dute, udalbatzarrean azaldu dutenez. Hala ere, Mendiolako lan hauek ez dira uda ostera arte hasiko, "bisoi europarraren hazkuntza errespetatzeko". Bestalde, 130.000 euroko aurrekontua dute Matienan txintxaunak estaltzeko.

Zelai artifiziala jarriko dute Astolan, "maizago erabiltzeko aukera izateko"

60 urtetik gorako zaldibartarrek 30.000 eurogaz zer egin erabakiko dute

ZALDIBAR • A.M.

2018ko aurrekontu parte-hartzaileen prozesua martxan jarri gura du Zaldibarko Udalak, beste behin. Aurtengo honetan, 60 urtetik gorako zaldibartarrek 30.000 euro zertan inbertitu erabakiko dute. Lehenbiziko saioa ekainaren 6an izango da, eta bertan proposamenak eta eskariak jasoko dira; 18:00-19:30 bitartean izango da bilera, liburutegi zaharrean. Bigarren saioa, ostera, uztailaren 3an izango da eta, bertan, bozketa bidez hartu beharreko neurriak erabakiko dituzte. 2017ko aurrekontuetan ere 30.000 euro bideratu zituzten aurrekontu parte-hartzaileen prozesura. Orduan ere herritarren proposamenak jaso zituen udalak.

Datorren eguaztenean izango da lehenbiziko saioa, ekainaren 6an, 18:00-19:30 bitartean

A-8ko bidesarien aurkako plataforma Europara jotzea aztertzen dabil, doakotasuna eskatzeko

ELA, LAB, ESK, STEILAS eta UGT sindikatuek atxikimendua adierazi diote bidesariaren doakotasun eskariari

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

A-8 autobideko bidesarien aurkako plataformak borrokan jarraitzen du eta Europara jotzea aztertzen dabil, doakotasuna erreklamatzeko. Bidesarien politikagaz Durangaldeko eta Lea Artibaiko herritarrak "diskriminatzen" dituztela uste dute, Bizkaiko gainerako eskualdeekin alderatuta. Arrazoi horregaz, Europako instituzioen laguntza eskatuko dute, eta prozedura hori zelan egin aztertzen dabiltza uneotan.

Juan Carlos Poderoso plataformako kideak eguaztenean eskainitako prentsaurrekoan iragarri zuen euren asmoa. Berez, sindikatuek erakutsitako babesaren berri emateko deitu zuten prentsaurrekora. Izan ere, ELA, LAB, ESK, STEILAS eta UGT sindikatuek atxikimendua adierazi diote plataformak doakotasunaren alde daraman dinamikari. Adierazpen bateratua sinatu dute denek. "Gure erakundeetatik uste dugu langileak direla honen guztiaren aurrean kaltetuenak, gaur egun ditugun produkzio ereduak mugikortasunean oinarritzen baitira". Poderosoren ustez, "diskriminazioa argi" ikusten da langileen kasuan. "Bide azkarra erabiltzeagatik ordaintzen dute, edo prekarioa, arriskutsua eta desegokia den N-634a erabiltzen dute", dio plataformako kideak. Gainera, zergak ere ordaintzen direnez, Durangaldekoek autobidea birritan ordaintzen dutela kritikatu du. Bere arabera, Aldundiak 39 milioi euroko etekina izan zuen iaz, eta "autobidea amortizatuta" dago.

Plataformak 25.000 sinadura batu ditu dagoeneko, eta uztailaren 7an karabana edo auto-ilara bat egingo du protesta lez.

Juan Carlos Poderoso, eguaztenean, Durangoko Pinondo Etxean emandako prentsaurrekoan.

Kanpandorrean dagoen erlojua, 160 urtekoa, auzolanean konponduko dute

OTXANDIO • J.D.

Elizako kanpandorreko erlojuaren arduraduna erretiratu egin da, eta orain ez dago erlojuaren pisuak nork goratu. Izan ere, pisudun erlojua da, udalak orain 160 urte erositakoa. Sistema mekanizatua ezartzea da aukera bat egoerari irtenbidea emateko. Herritarrekin kontsulta egin ostean, ondorio argi bat atera zuten: erlojua herriko altxor bat dela eta eraberritzea merezi duela. Auzolanean egingo dute lan hori, eta dagoeneko "taldetxo bat sortuta" dagoela adierazi du Juan Mari Otxandiano zinegotziak. Datozen hiru-lau hileetan horrelako erloju bat zelan eraberritu ikasiko dute arloko adituei bisita eginda. Uda ostean hasiko dira erlojua eraberritzen.

21 lagun batu dira asteon aurrekontu parte-hartzaileen batzarrean

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2018ko aurrekontu parte-hartzaileetara bideratutako 150.000 euroekin zer egin erabakitzeko aukera izan dute asteon Berrizen.

Astelehenean, Berrizko herrigunera bideratutako 100.000 euroekin zer egin eztabaidatu zuten eta, martitzenean, landa gunera bideratutako 50.000 euroen inguruan hitz egin zuten berriztarrek.

Berrizko Kultur Etxean egindako batzarrean 21 lagunek parte hartu zuten. Ekainaren 11 eta 26rako, beste deialdi bana egin dute Berrizko Udaletik. Batzar hauen helburua aurreko saioan irtendako proposamenak zehaztu eta proiektuak zeintzuk izango diren erabakitzea izango da.

Bellon eta 'Katxue'-ren oroigarriak kaltetu izana salatu du Elorrioko Ezker Abertzaleak

Guardia Zibilak Bellon eta 'Katxue'-ren oroigarriak kaltetu zituela azaldu dute

ELORRIO• MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apirilaren 19an, goizaldean, Guardia Zibilak Jose Mari Aranzamendi 'Katxue' eta Arkaitz Bellon elorriarren oroigarriak kaltetu zituela azaldu zuen Elorrioko Ezker Abertzaleak joan zen asteburuan. "'Katxue'-ren oroigarria eraman egin zuten eta Bellonen oroigarriari kalteak eragin zizkioten".

Hainbat elorriarrek apirileko gertakariak salatu zituzten herriko plazan, eta Berriozabaletara joandako guardia zibilek "min egitea" gura zutela adierazi zuten. "Herri hau oroimenaren errelatoa lantzen ari den une honetan, beraien errelato bakarra inposatzera etorri ziren, gurea zanpatuz; beste minik egon ez balitz bezala", adierazi zuten asteburuan. "Bellon eta 'Katxue' erail zituen espetxe politika krudelari bere horretan eusten diote eta, horrelakorik berriro gertatu ez dadin, mendekuan oinarritutako salbuespen neurri guztiak bertan behera uzteko eskatzen dugu", adierazi zuten joan zen asteburuko prentsaurrekoan.

Horrez gain, 2014an hil zen Arkaitz Bellonen eta 17 urte lehenago hil zen Jose Mari Aranzamendiren oroimena ez dietela "lapurtuko" esan zuten prentsaurrekoan Elorrioko Ezker Abertzaleko kideek.

Joan zen asteburuan eman zuten prentsaurrekoa.

Hareek denporak!

Txintxirri ikastolako lehen ikasleen irteerak

50 urte bete ditu aurten Elorrioko Txintxirri ikastolak, eta bihar jaialdi handi bategaz ospatuko dute. Efemeridearen harira, ikastolako argazki zahar bat dakargu gaur, 1978koa. Karlos Arandok bidalitakoa da, eta Egin egunkarira egindako bisita bat erakusten du.

11-12 urteko ume taldea ageri da argazkian, Arando bera tartean, Imanol Gaztañaga eta Pedro Maria Santos irakasleekin. "Orduan gauza gutxi genekien bertoko komunikabideen lanaren garrantziaz, gertuko prentsa irakurri ahal izatearen aukeraz eta plazerraz. Geroago ulertu ahal izan dugu zein inportantea den", esan du Egin eta Egunkariaren itxierak gogoratuz. Ikastolako jaiaren atarian, ekintza ugari antolatu dituztela nabarmendu du. "Zorionez, *Gara*k, *Berria*k, baita ANBOTOk ere emango dute honen berri". **M.O.**

Durangaldea asteon

Diru-laguntzak nagusientzat, dutxak eta instalazio elektrikoak aldatzeko

Durango I Instalazio elektrikoak aldatzeko eta bainuontzien ordez dutxak jartzeko diru-laguntzak eskatu ditzakete Durangoko adinekoek. Udalak laguntza horiek eskatzeko epea zabaldu du berriro. 75 urtetik gorakoentzat zuzenduta daude, eta urriaren 30era arte eskatu ahal dira.

"Ekimen honegaz adinekoen autonomia eta segurtasuna bultzatu gura ditugu", esan du gizarte ekintza saileko presidentea den Pilar Riosek.

Hitzarmenen estatalizazioen aurkako mobilizazioak egin dituzte, LABek deituta

Durangaldea I Eguaztenean *Estatalizazioa=Prekarizazioa. Hemen lan egin, hemen erabaki lemapean* ordu biko lanuzteak egin zituzten Durangaldean, LABek deituta. "Langileon lan baldintzak okertzeak dakarren merkatzeagaz, patronalaren etekinak biderkatzen jarraitzea" da estatalizazioaren helburua, LABen iritziz. Gainera, bere atzean negoziazio kolektiboak eta negoziatzeko eremu berriak blokeatzeko asmoa ere badagoela salatu zuten.

Guatemalako proiektu batera 35.000 euro bideratu ditu Zornotzako Udalak

Zornotza I Euskal Fondoak sustatzen duen proiektuaren bidez, edateko uraren sarea eramango dute Chaquiquiché eta Las Ruinas herrixketara. Proiektua 73.000 eurokoa da bere osotasunean eta Zornotzak 35.000 eurogaz lagunduko du. Chaquiquichen bizi diren 349 pertsonen eta inguruko herritxoan, Las Ruinasen, bizi diren 943 pertsonen etxebizitzetara edateko ura eramateko hoditeriak sartuko dituzte.

Kurutziagako ikasleen 'Txotxe' zunda meteorologikoa 35.000 metrora heldu da

Durango I Beñat Igarza, Xabier Goiri, Paul Alberdi, June Azkarate, Ander Rubio eta Aritz Corpion dira "Txotxe" zunda meteorologikoaren proiektuan parte hartu duten DBH4ko sei ikasleak. Guztiek ere fisikako ikasgaia aukeratu zuten hautazkoen artean eta fisikarekiko jakin-minaren harrak eraginda erabaki zuten zundaren abenturan sartzea. Eskola orduz kanpo, bazkalosteetan garatu dute joan zen zapatuan estratosferaraino, 35.000 metrora, hegaldatu zen zundaren proiektua. "Egoera meteorologikoa ona zen, baina bagenuen kezka aireratzerakoan ez ote zen kateatuko zuhaitzen bat jota. Justu-justu libratu zuen harmailetako zuhaitza", azaldu dute ikasleek.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Sei hankako mahaia

Pilar
Rios Ramos
PSE-EE

Gaitasunaren Egun handia Durangon

Hilaren 26an, larunbata zela, Durangok ahalegin guztia egin zuen 'Gaitasunaren Eguna' ospatzeko. Aurrez, gogor lan egin behar izan zen, eta boluntario askoren lankidetza behar izan zen, gehienbat Durangon dauden 75 elkarte eta erakundeetako kideek (kulturako, kiroleko, gazteen, adinekoen edo gastronomiako elkarteetakoek... eta abar) emandako laguntza.

Geu Be, Río de Oro eta Síndrome de Angelman elkarteek eta Durangoko Udalaren Gizarte Ekintza Arloak hartu zuten jardunaldia antolatzeko ardura, baina gero hainbat erakundek bat egin zuten haiekin. Besteak beste, Más Curvas taldekoek motoan buelta bat egitea eskaini zuten; Gorabidek boccia partidak antolatu zituen; Dukiena zentro hipikoak zaldi-ibilbideak eskaini zituen; Bizidun elkartea bastoiak nola erabili irakasten aritu zen...

Hainbat elkartek informazio mahaiak antolatu zituzten: Asebi (arantza bifidoa), Begizare, Stop Accidentes, La cuadrilla del Hospi, Río de Oro, Bizidun eta Geu Be elkarteek. Bazkalorduan, eskualdeko txokoek eta gastronomia-elkarteek prestatutako paella gozoak dastatu ahal izan genituen, bai eta postreen lehiaketan parte hartutako tartak ere -lehiaketako epaimahaikide izateko zortea izan nuen-.

Oso egun berezia izan zen, eta ederto pasatu genuen Landako Gunean, lagunez inguratuta. Egutegian nabarmentzeko moduko eguna izan zen.

Ez dakit Durango bezalako udalerririk egongo den, hain kalitate handiko hainbeste elkarterekin, inplikatzeko eta astialdian bidezko auzien alde lan egiteko prest dauden hainbeste lagunekin. Harro sentitu nintzen berriz neure herriaz, hain konprometitua eta solidarioa den Durango udalerriaz. Zalantzarik gabe, hori da hori gaitasuna!

Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA
Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Estetika zentroa PSE: 36/16

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Lehen 55€ orain 38.5€

%30eko beherapena aurpegia argitzeko tratamenduan C bitaminarekin
Ekainaren 1etik 29ra

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • www.anacamarero.com
Zentru ez sanitarioa

H.P.S.: 36/16

Udan ilea zaintzeko

Amaia Salazar
Nukleo

NUKLEO I Hogei egun inguru geratzen dira udan sartzeko, eta sasoi honetan ilearen zaintzan sortzen diren arriskuez berba egin digu Amaia Salazarrek. Gainera, hainbat gomendio eman dizkigu.

Udara sartzera goazen sasoi honetan, zelan zaindu dezakegu ilea?

Udan ilea asko lehortzen da. Adibidez, hidratazio eta nutrizio tratamenduekin zaindu dezakegu ilea. Gainera, etxean geruzak ematea, ohi baino gehiago, ondo egongo litzateke.

Zein izan daiteke ilerako arriskurik handiena udan? Eguzkia? Kresala?

Denak. Kresala, eguzkia, kloroa... Gainera, hauek guztiak beti datoz batera udan. Beraz, kaltea askoz handiagoa da.

Bestelakoan, zein aholku daukazu gure irakurleentzat? Zer nobedade duzue Nukleon?

Jendeak dio ez duela geruzarik ematen ilea koipetsu, zikin edo bolumenik barik geratzen zaielako. Baina beraientzat egokia ez den geruza bat erabiltzen dutelako da hori. Ile-apaindegian aholkua eskatzea gomendatzen diet. Gure ile-apaindegian egiten ditugun keratina tratamenduak, hidratazioz-koak eta Elumen izeneko tindagaia aipatu nitzake adibide on lez.

Ile-apaindegia



NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

XXVI Uraren Jaia fiesta del Agua 2018

ARRIGORRIAGA
Agirre Lehendakariaren parkea
Parque Lehendakari Aguirre

EKAINAK 3 JUNIO
10:30-15:00

PUZGARRIAK
Hinchables
UR JOLASAK
Juegos de agua
IKUSKIZUNAK
Espectáculos
TAILERRAK
Talleres
ETA ASKOZ GEHIAGO
Y mucho más

Laguntzailea / Colabora
arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

Antolatzailea / Organiza
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

UDA GEHIGARRIA

"Gauza asko ikasiko ditut, baina, batez ere, desikasi egingo dudala uste dut"

Herrialdeak beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera eskaintzen dute lankidetza programek; Eider Chaves atxondarra Perun eta Saharan (hiru bider) egona da kooperante, eta udan Kolonbiara joango da

ATXONDO • ARITZ MALDONADO

Eider Chavesek (Atxondo, 1993) Medellinen (Kolonbia) igaroko du uda, Ciudad Don Bosco komunitatean. Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen 'Gazteak Lankidetzan' programagaz bidaiatuko du.

Zertara zoaz Medellinera?

Salesiarrek orain 50 urte sortu zuten Ciudad Don Bosco komunitatera noa. Kaleko umeak batzen hasi ziren, eta egun 1.200 lagun (900 ume-gazte eta 300 langile) daude bertan. Lan munduan integratzen eta autoestimuan, harremanetan edo bestelakoetan trebatzen laguntzen diete bertan. Nik aisialdi dinamiketan lagunduko dut. Talde multidiziplinar batekaz arituko naiz.

Euskal Herritik, zeu bakarrik zoaz?

700 lagunek eman genuen izena, eta proba biren ostean 100 lagun aukeratu gintuzten zenbait proiektutan parte hartzeko. Medellinera Donostiako neska bat eta biok goaz.

Ezagutzen duzu Kolonbia?

Egonda nago Latinoamerikan, Perun, beste komunitate batean lanean, eta baita Uruguain ere; han ikasten eta bidaiatzen egon nintzen.

Bidaia honek zein ekarpen egingo dizula uste duzu?

Erantzunagaz ez naiz originala izango. Uste dut gauza asko ikasiko ditudala, baina, batez ere, beste asko desikasi egingo ditudala uste dut. Kooperante mexikar bati entzun nion gizarte bakoitzak bere paradigma duela, eta normalean itxia izaten dela; kanpora doazen edo kanpotik datozen pertsona horiek galderak egitea errazten dute. Planteatzen dituzten galderek autokritika egitea laguntzen dute.

Saharan ere egonda zaude kooperante gisa.

Saharakoa egoera oso konkretua da. Han egon ostean, kontzientziatuago nago hango egoeraz eta, orokorrean, errefuxiatuen gaiagaz. Ekarpena, askotan, sentsibilizazio hori izaten da; albistegietan informazioa jasota, beharbada, gainazalean geratzen da, baina han egoteak beste maila batean eragiten dizu.

Esperientzia gomendatuko zenuke?

Normalean, bizi garen espaziotik irtetea beti da interesgarria. Beharbada modan jarriko zen kooperazioa eta munduari buelta ematea, baina, nire ustez, kontua ez da ahalik eta urrunen joatea. Orain badirudi derrigorrez bidaiatu behar dela, baina zilegia da baita ere, betiko txokoan betiko jendeagaz egotea gurago duenaren iritzia. Disfrutatzeko modu bakarra ez da irtetea, baina, zalantza duenari, animatzeko esango nioke.

Aisialdirako tarterik edukiko duzu?

Astean zehar zortzi orduko lanaldiak izango ditugu; asteburuak, ostera, libre edukiko ditugu. Batez ere, bertakoekin elkarbizitzea gura dut; ez dut beste ezer erabakita.

Ciudad Don Bosco komunitatean 900 gazte inguru daude; lan munduan integratzen eta autoestimuan eta harremanetan trebatzen laguntzen diete bertan

Eider Chaves, Saharako egonaldietako batean.



Oinezko AEK Ibiltaria Ipar Euskal Herritik ibiliko da uztaileko bi astean

Lapurdiko, Zuberoako eta Behe Nafarroako ohiturak, bizimoduak eta euskalkiak ezagutuko dituzte

Euskaraz mintzatzeko eta Euskal Herriko hainbat toki ezagutzeko aukera eskaintzen dute urtero AEK ibiltariek.

Uztailaren 20an afari musikatua egingo dute Baigorrin, bertako herritarrek antolatuta, eta hiru barnetegiko kideak batuko dira bertan

AEK IBILTARIA • JOSEBA DERTEANO

Aurten ibilbide berriekin datoz AEK ibiltari biak: bai oinezkoa, bai bizikletaz egitekoa. Oinezkoa Ipar Euskal Herritik egingo dute ia osorik eta hango bazterrak ezagutzeko aukera eskainiko du. "Aspaldi buruan genuen zerbait da eta ikasleek eurek ere eskatua ziguten", adierazi du Asier Arroita AEK Ibiltariko antolatzaileetako batek.

Aurtengo aldia —uztailaren 16tik 29ra— Hondarribian hasi eta Izaban amaituko da, Hiru Erregeen Mahaia igo ostean. Egun batzuetan hango baserritar batzuekin egongo dira, baserri munduko ohiturak ezagutzeko. Uztailaren 20an, Baigorrin, afari musikatua egingo dute, bertako herritarrek antolatuta. Hiru barnetegi batuko dira bertan: AEK Ibiltari biak eta Urepeleko barnetegia. Ekimen horiez gainera, 15 egunean Ipar Euskal Herriko mendiak, arroilak eta txoko bereziak ezagutzeko aukera eskainiko dute.

Bizikletako barnetegi ibiltariari uztailaren 16an ekingo diote, Deban, eta Etxarri Aranatzen amaituko dute 15 egun geroago. Urbasako parke naturala, Iratiko oihana eta Sakana eskualdeko bazterrak ezagutuko dituzte, besteak beste. Uztailaren 17ko hirugarren etapa Otxandion amaituko da. Han lo egingo dute, hurrengo etapari ekin aurretik.

Izen-ematea aste birako zein baterako

Barnetegi bakoitzak 530 euro balio du osorik eginez gero, eta AEKren webgunean egin daiteke izen-ematea. Aurten berrikuntza bat gehitu dute arlo honetan. Ibiltari osoa egin ezin duenak astebeterako eman dezake izena, ibilbide batean zein bestean.

Oinezko AEK Ibiltaria Hondarribian hasi eta Izaban amaituko da, Hiru Erregeen Mahaia igo ostean.

"Umeek aisialdia euskaraz bizitzeko aukera izatea oso garrantzitsua da guretzat"

Etxeko gazteenen udako oporraldi luzeari erantzuteko aukera ezin hobea dira udalekuak gurasoentzat. Berbaro euskara elkarteak aukera zabala jartzen du neska-mutilen eskura

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Berbaro elkarteak antolatutako udaleku finkoetan (Mendigorrian eta Uitzin) eta ibiltarian (Durangotik Bermeora) 160 neska-mutilek parte hartuko dute, aurten. Durangon egiten duten Udan Olgetan udaleku irekian, berriz, 200 bat umek parte hartuko dute. Mertxe Garcia eta Ziortza Onaindia amek aisiadirako proposamen horregaz bat egiten dute.

Guraso lez, zerk eraman zintuzten Berbarok eskainitako aisialdi programaren aldeko apustua egitera?

Ziortza Onaindia: Berbaroko bazkide izanik, gertutasun eta konfiantza horrek bultzatuta hasi ginen 11 urte dituen alaba nagusiagaz. Aisialdia euskaraz bizitzeko eta euskal kultura ezagutzeko aukera ematen zuen. Gerora, herriko eskola guztietako umeak batzen dituzten herri udalekuak direlako jarraitu dugu. Denak elkarregaz egongo diren plaza bat izatea aberasgarria da, lagun berriak egiteko ere bai.

Mertxe Garcia: Beste gazte batzuekin harremanetan jartzeko aukera ematen dute, eta hainbat tokitara joateko. Umeari konfiantza hartzen laguntzen diote, hainbat jardueratan parte hartzeko aukera eskainita. Orain hiru urte joan zen lehenengoz eta, pentsatu gabe, poz-pozik doa. Uitzira doa. Urtean zehar Berbarok antolatutako beste ekintzetan ere parte hartzen du, oso pozik. Oso motibatuta dator.

Euskarazko aisia izateari garrantzitsua deritzozue?

Z.O.: Hori erabakiorra izan zen guretzat. Aisialdia euskaraz bizitzeko aukera izatea ezinbestekoa deritzogu, euskaraz eta euskal kulturaz gozatzeko aukera, euskaraz berba egitera mugatu barik.

M.G.: Oso garratzitsua da guretzat. Senarrak badaki zerbait, baina guk ez dugu euskaraz egiten etxean, eta semeari oso ondo datorkio euskara erabiltzeko.

Zuen seme-alabei zeintzuk ekarpen egiten dizkie Berbarok antolatutako udaleku hauek?

Z.O.: Uda luzea da eta guk ez ditugu hiru hilabeteko oporrak. Dena den, umeek umeekin egon behar dutela uste dut, eta alabak oso motibatuta ikusten ditut. Oso desberdinak diren arren, hirurak oso pozik doaz udalekuetara, hasi zirenetik.

M.G.: Eskolatik kanpo, bestelako neska-mutilekin parte hartzeko aukera eskaintzen diote udaleku hauek. Oso garrantzitsua deritzogu horri.

Zer da zuen seme-alabei gehin gustatzen zaiena?

Z.O.: Udalekuetako dinamika, hango jolasak. Txangoak, igerilekuetara joatea. Gazteenak hamabost egun egingo ditu Udal Olgetanen; baina beste biek ere, astebetez behintzat, Udan Olgetanera joan gura izan dute, nahiz eta bata Uitzira eta bestea Mendigorriara joango diren.

M.G.: Gero eta gutxiago kontatzen du, baina, oro har, dena du gustuko: eskulanak, irteerak, jaiak...

Mertxe Garciaren seme gazteenak eta Ziortza Onaindiaren hiru alabek Berbaroren udalekuetan parte hartzen dute.

Udaleku finko eta ibiltariak antolatzen ditu Berbarok, herri udaleku irekiak ez ezik.

<< PLAZAREN PLAZERA >>

ERROTA

Intxaurrondo kalea, 54
Durango
Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik dago 07:00etatik 23:00etara.
Besteak beste, gosariak, pintxoak, entsaladak,
eta ogitartekoak eskaintzen ditugu.
Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.

ASTEI JATETXEA

Muniketa gaina,
Bizkaiko begiratokira bidean
Muxika
Tel.: 946 732 318

Gure terraza naturaren estilismoaz eta lasaitasunaz gozatzeko lekua duzue; jatordu bat zein trago batzuk hartzeko aukerarekin.

PLATERUENA

Landako etorbidea, 4A
Durango
Tel.: 946 030 300

Uda honetan Plateruenako doako terraza zerbitzuaz gozatu: etxeko irabiatuak, izozkiak, kafeak, garagardo karta…
eta asteazkenetan jazz emanaldiak iluntzeetan.

NAPOZT

Josemiel Barandiaran,
8 behea - Durango
Tel.: 946 004 086

Ez dugu udarako terrazez gozatzea baino plan hoberik ezagutzen! Hemen duzue Napozt bere pintxoekin, edariekin eta errazioekin gozatzeko! Udan gainera, terraza 01:00ak arte zabalik!

HOTEL OLAJAUREGI

Kurutziaga, 52
Durango
Tel.: 946 200 864

Hotel Olajauregik terraza irekiko du tabernarekin, ekainaren 6tik aurrera.
Etor zaitez gurera eta dastatu terrazan
eskainiko ditugun afariak!

ABARKATERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza - Abadiño
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak.
Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

GORA-GORA

Arriluzea, 2
Durango
Tel.: 946 811 384

Plan bikaina Tabirakoa udaran! Terraza, giro, zerbitzu, edari, janari gazi zein gozoez
gozatzeko aukera bikainarekin!
Zatoz gugana!

AI AMA

Iturburu, 9 - Iurreta
Tel.: 946 817 847
www.restaurantebetixu.es

Terraza eta giro oso atseginak. "Quiero café" barista profesionalen elkartearen arabera, estatuko kaferik onena duten 100 lokalen artean dago. pintxoak, etxeko gozogintza eta gin tonic-etan espezializatua

Udan inteerak antolatzen dituzte Alpino Tabira eta Erdellako kideek. .

Musala, Vijren eta Balaitus mendiak eskualdeko mendi taldeen udako proposamenak

Durangoko Alpino Tabira Mendi Klubak eta Elorrioko Erdella Mendizale taldeak egitarau berezia antolatzen dute udarako; aurten uztailean eta abuztuan egingo dituzte irteerak

MENDI IRTEERA • **MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Euskal Herrian mendirako zaletasun handia dago eta Alpino eta Erdella mendi taldeak, besteak beste, zaletasun hori indartzen dabiltza Durangaldean. Aurten ere, azken urteetan bezala, mendiak aitzakia hartuta mundua ezagutzeko aukera izango dute.

Durangoko Alpino Tabira Mendi Klubak Bulgariara irteera antolatu du uztailaren 31tik abuztuaren 14ra. Abuztuaren 2an, esaterako, 2.925 metro dituen Musala mendira igoko dira; abuztuaren 6an, 2.914 metro dituen Vijren mendira; eta abuztuaren 8an, 2.851 metro dituen Polezhan mendira.

Mendi irteera horiez gain, beste hainbat irteera ere egingo dituzte, eta Bulgariako hainbat toki ikusteko ere baliatuko dute.

Alpino Tabirako kideek jakitera eman dutenez, dagoeneko Bulgariako irteerarako 30 plazak beteta daude. "Oso pozik gaude jendeak izan duen erantzunagaz. Izen-ematea zabaldu eta ordu gutxitan plaza guztiak bete ziren", jakinarazi dute Alpino Tabirako kideek.

Erdellakoak, Pirinioetara

Elorrioko Erdella Mendizale taldeko kideek Pirinioetara antolatu dute irteera, uztaileko bigarren astebururako. Erdellakoen asmoa 3.145 metro dituen Balaitous mendira igotzea izango da. Edu de la Cruz Erdella Mendizale Taldeko presidenteak jakitera eman duenez, mendi irteera honetarako izen-ematea ekainean zabalduko dute, eta hamazortzi pertsonarentzako tokia egongo da gutxi gorabehera.

Hala ere, Pirinioetarako irteera ez da Erdellakoek uztailerako antolatu duten irteera bakarra. Uztailaren 15ean, Villasana de Menatik Artziniegara txangoa egingo dute, eta uztailaren 21etik 22ra arroilen jaitsira egingo dute.

AZTERKETA OFIZIALAK
INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA
azoka IDIOMAS
ENGLISH · FRANÇAIS · DEUTSCH
Cambridge English Exam Preparation Centre
Matrikula zabalik!
Azoka kalea 1-1 ezk. (Zinema eta plazaren artean) DURANGO
Tel.: 946 819 088 · www.azokaidiomas.com

LANGUAGE SCHOOL
REDHILL
606757720-946814282
MAILA GUZTIAK
TALDE BAKOITZEAN
5 IKASLE GEHIENEZ
ORDUTEGI MALGUA
Zubibitarte 11, Behea ezkerra
Matiena, Abadiño
www.redhillanguage.com
redhill.language.school@gmail.com
Redhill Language School

KURUTZIAGA
ARTE EDERRETAKO AKADEMIA
Uztailean ikas ezazu margotzen!
Helduentzako ikastaroak
IKASTARO BEREZIAK!
Eskatu informazioa eragozpenik barik
Tel.: 946 030 527 / 678 657 676
www.akurutziaga.com
Kurutziaga, 24 DURANGO
Haurrentzako ikastaroak

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA
Matrikula zabalik!
Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan
PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA
soinua
Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

Hauxe da lagunak ugaritzeko unea

Eta zure kanpoaldeko altzaria aukeratzeko unea.
Hainbeste aukera dituzunez, erraz aterako diozu probetxua zure kanpoaldeko espazioari. Eta igerilekua baduzu, zatoz guregana eta dena prest utziko dizugu.

Jaso informazioa zure dendan edo aki.es

#tanfácilquenotelocrees

AKI
Bricolaje fácil

AKÍ Durango – Montorreta Kalea s/n

Umeentzako udalekuetan askotariko ekintzak garatzen dituzte Dukienan.

Zaldiekin batera, udaleku atsegin bat igaro eta ekitazioaren munduan murgiltzeko aukera

Berrizko Dukiena zentro hipikoak umeentzako udalekuak eskaintzen ditu; ekainaren 25etik uztail amaierara egongo dira eta, ostean, iraileko lehen asteetan ere bai

HIPIKA • MARKEL ONAINDIA

Gaur egun askotarikoak dira umeentzat eskaintzen diren udalekuak. Aisialdia, hizkuntza, kirola... Horien artean, aukera interesgarrietako bat ekitazioarena da. Berrizko Dukiena zentro hipikoak, adibidez, zaldiekin batera uda pasatzeko aukera dakar.

Egun erdiz, egun osoz eta aste osoan ere egon ahal dira umeak Dukienako udalekuan. Ekainaren 25etik uztailaren 27ra arte parte hartu ahalko da, eta gero iraileko lehen aste bietan ere bai. 631 11 52 47 telefonoan apuntatu ahal da. Goizez ekitazioagaz lotutako ekintzak garatuko dituzte irakasle profesionalen eta begiraleen eskutik, eta arratsaldez aisialdi eskaintza zabalagoa izango da. Hori guztia ingurune natural handi batean. Robert Zedlitz da bertako irakasleetako bat, eta ekitazioak norbere heziketarako balio duela uste du. "Umeentzat aktibitate onuragarria da hipika, izaki bizidun batekaz interakzioan dagoela ikasi eta disfrutatu ahal dutelako. Animaliekiko eta naturarekiko errepestua sustatzen du, eta baita diziplina eta autokontrola lako balioak ere. Osasuntsua da, eta gazteen pertsonalitatea eraikitzeko ona". Alemanian eta Frantzian batu zuen esperientzia gehiena Zedlitzek, eta gaur egun irakasle da Euskal Herrian erreferenteetako bat den zentro hipikoan. Uda ekitazioan murgiltzeko "sasoi ezin hobea" dela dio.

Goizez ekitazioagaz lotutako ekintzak garatuko dituzte, eta arrsatsaldez aisialdi eskaintza zabalagoa izango da

Balioak sustatzen

Udalekuez aparte ere eskolak ematen dituzte urtean zehar. Zaldiekin ibilaldiak eskaintzen dituzte, eta zaldiak dituztenek bertan utzi ahal dituzte, alokairu baten trukean. Nabarmentzekoa da hipoterapia zerbitzua dutela, aniztasun funtzionala dutenentzat. Izan ere, ekitazioagaz batera balioak sustatzea ere bada euren helburua.

Klubekoek irteerak egiten dituzte txapelketetara.

Robert Zedlitz irakasleak Alemanian jaso zuen esperientzia, eta txapelketetan ere parte hartu izan du.

Patricia Arruti donostiarraren erakusketa ekainaren 17ra arte bisitatu daiteke. Goiko argazkia: Maite Arbizu

Donostiko Aquariumak itsasoko argi-ilunak batu ditu erakusketa batean

Patricia Arruti artista donostiarraren lanak ekainaren 17ra arte bisitatu daitezke Aquariumeko Nautilus aretoan

ERAKUSKETA • **JOSEBA DERTEANO**

Donostiako Aquariumak hainbat aukera eskaintzen du itsas barneko munduan barneratzeko. Urpeko animalien artean ibiltzeko modua da denetan ezagunena eta erakargarriena, baina ez bakarra. Itsasoaren magiagaz busteko beste bide bat aldiro antolatzen diren erakusketak dira. Ekainaren 17ra arte ikusgai dagoenak, esaterako, Patricia Arruti (Donostia, 1983) artistaren lanak jasotzen ditu.

'Adarra eta Ekaitza', 'Itzala eta Tximistargia', 'Olatuaren Gaua' eta beste hainbat oleogaz 10 aleko erakusketa osatu du, eta itsasoak eragiten dizkion sentimendu eta pentsamenduak islatu ditu bertan. "Itsasoaren argi-ilunak jasotzen saiatu naiz", adierazi du Arrutik. Pista hori emanda, nahiago du bere motibazioetan sakondu baino, bisitariari bere bidaia propioa egiten utzi. "Nork bere esperientzia bizi dezala gustatzen zait, bakoitzak bere interpretazio pertsonalak egin ditzala", azaldu du Milanen, Londresen, Madrilen eta New Yorken diseinu eta arte ikasketak egin dituen donostiarrak. Erakusketa Nautilus aretoan dago ikusgai, 17:30etik 19:30era, eta sarrera doakoa da.

"Bakoitzak bere interpretazio pertsonalak egin ditzala gustatzen zait", adierazi du erakusketaren egilea den Patrica Arruti donostiarrak

Ozeanoen Nazioarteko Eguna

Ekainaren 5a eta 8a Ozeanoaren Nazioarteko Eguna eta Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna dira, hurrenez hurren. Ildo horretatik, itsasoa eta bertako aberastasuna zaindu beharreko altxorra direla gogoratzeko tailerra egingo dute ekainaren 9an. Egun horretan, 10:30etik 13:30era, botilak eta plastikoak etxeko apaingarri bihurtuko dituzte, uretako landareen itxura emanda. Adin guztietako bisitariei bideratuta dago eta Aquariumean egun horretako sarrera erostea nahikoa da parte hartzeko.

Udara begirako beste ekimen batean, hondartza irudikatzen duen eszenografia bat jarriko dute Donostiako badiarantz ematen duen begiratokian. Mikroskopio, lupa eta bestelako errekurtsoen bidez badian bizi den faunari eta florari gertuko begiratua eman ahalko zaio. Ekimen honen zein bestelakoen informazio gehiago 943 44 00 99 telefonoaren bidez jaso daiteke.

ALAZNE UNZUETA | ABADIÑO

"Herri txikietako jaien aldekoa naiz, eta eskualdean horrelako jai oso onak ditugu"

Alazne Unzueta Arregi abadiñarrak herri txiki eta auzoetako jaiak ditu gustuko.

Zer gomendatuko zenuke udan Durangaldean egiteko?
Herri txikietako jaien aldekoa naiz eta eskualdean horrelako jai oso onak ditugu. Nik neuk Garaiko eta Gerediagako jaiak gomendatuko nituzke. Herri txiki edo auzoetako jaiak izatera, giroa hurbilagokoa da, anbientea oso ona izaten da. Ekintzak ez dira beste munduko gauza bat izaten, baina lagun giroan egiten direnez, parranda ederrak egiten dira. Horrez gain, Mendiolako jaiak ere gomendatuko nituzke, oso giro polita egoten da eta. Niri neuri herri txikietako jaiak handietakoak baino gehiago gustatzen zaizkit. Horregatik, jendeari jai hauetara joateko esango nieke.

Eta, jaiez aparte, zer gomendatuko zenuke?
Hondartzara edo beste norabait joan ostean, plan polita izaten da San Juanen parrilladatxo bat egitea, lagun artean. Horrez gain, Durangaldean hainbat egun-pasa egin daitezke, ibilbide asko ditugu-eta bizikletan edo oinez egiteko. Garain bertan Oiz inguruko txangoak daude, eta Axpera joanda, bidegorri ingurua daukagu. Eskualdean ditugun mendi guztiekin uda guztirako plana izango genuke, egunean mendi bat igotzeko aukera baitugu.

ASIER BILBAO | ZORNOTZA

"Zornotzan auzo piloa dugu, eta denetan egoten da zerbait"

Haizetara jaialdiagaz eta herriko zein auzoetako jaiekin gozatzen du udan Asier Bilbao Rui-Wambak. Nañon euskara taldeko kidea da, eta Durangoko institutuan irakasle dabil lanean.

Zer egin genezake udan Zornotzan?
Zornotzan jaiek markatzen dute uda, luzeak direlako. Jaien ostean, bestalde, herria hustu egiten da, batez ere abuztuko lehen hamar egunetan. Horrez gainera, Zornotzan 18 bat ermita daude; santuen izendegi erdia geurea da (barrez). Sanisidroak oraintsu izan dira, sanpedroak, Etxanoko jaiak, Andra Mari bueltan, sanmigelak ere baditugu, Boroakoak... Autzaganen ere famatua izaten da Amurizak-eta antolatzen duten bertso afaria. Auzo piloa dugu eta denetan egoten da zerbait.

Kulturalki, ekimen garrantzitsua da uda hasieran antolatzen den Haizetara kaleko musika taldeen jaialdia.
Gero eta indar gehiago hartzen dabil, eta niri, gaur egun, herriko jaiak baino gehiago gustatzen zait. Gainera, garagardo jaiagaz elkartu zuten, eta guneak sortu ziren. Jendearen erantzuna oso ona izaten da.

Beste aukerarik?
Igerilekuetara edo pilotalekuetara joatea izan ahal da aukera. Hala ere, Zornotzaren kokapenagatik, jende askok hondartzara jotzen du.

GONTZAL AIZPURUA | DURANGO

"Kalean jazza eskaintzeak ukitu magiko bat dauka, nire ustez"

Musikazalea da Gontzal Aizpurua durangarra, eta Plateruena kafe antzokian antolatuko den jazz musika jaialdiagaz gozatzeko irrikaz dago. Otxote eta abesbatza banatan parte hartzen duenez, bere emanaldiak gainerako ekitaldiekin uztartuko ditu.

Iaz hasi zen Plateruеneko jazz musika jaialdia. Gustatu zitzaizun?
Niretzat gauza oso ederra izan zen. Gogoratzen dut lehen kontzertua Trizak taldearena izan zela. Hasier Oleaga bateria-jotzailearen proiektuetako bat da. Plateruenean bestela ere egiten dira Jam sessionak-eta, baina musika leku itxietatik askatzea eskaintzen du. Kalean musika hori eskaintzeak ukitu magiko bat dauka, nire ustez. Erritmoa, inprobisazioa... denboragaz badauka hartu-emana, eta udan beste modu batean sentitzen dugu. Gainera, eszenografia ere polita izan zen. Leku zoragarria da, musika oso ondo entzuten da, eta zerbait hartzeko edo afaltzeko atsegina da.

Aparte, zer egingo duzu udan? Kontzertuetara joateko asmoa duzu?
Musika ekitaldi askotara joaten naiz. Abesbatzak, musika klasikoa, jazza, pop-rock mugimendua... Lagun bat Broken Brothers taldean dabil, eta badakit udan Durangoko kaleetan joko dutela.

BELEN GANBOA | ELORRIO

"Musikaireren egitaraua anitza eta maila onekoa izaten dela esango nuke"

Elorrion Musikaire programak indar berezia hartzen du uda garaian. Belen Ganboa Agirre ahal duen emanaldi guztietara joaten da, eta, gainera, antolatzaileei laguntza ematen die.

Zelakoa izaten da uda Elorrion kulturari dagokionez? Parte hartzen saiatzen zara?
Uztailaren 4an Berriotxoa eguna izaten da, eta horregaz hasten da uda sasoia. Gero, trikitilari txapelketa ere egin izan da azken urteetan. Ostean, Musikaire etortzen da, asteburuetan herriko plazetan eta jauregietan garatzen dena. Kontzertuak eta antzerkiak izaten dira, antzezlanak batez ere domeketan. Egitarau anitza eta maila onekoa izaten dela esango nuke. Nik Musikairen parte hartzen dut, eta, gainera, lantzean behin aurkezpenak egiten laguntzen diet antolatzaileei.

Kultur ekimenez aparte, zer besterik egin ahal da Elorrion aisialdiari begira?
Elorrion ondo pasatu ahal da udan. Aukera ugari eskaintzen ditu herriak. Natur-ibilbideak egin daitezke, auzoetako paraje ederrak zeharkatuz. Audiogidekin herria ezagutzea da beste aukera bat. Orain urte bi, esaterako, lagun batzuekin egin genuen ekintza hori. Igerilekuak famatuak dira, aquapark txiki bat diruditelako, eta kanpotik ere etortzen da jendea. Zalditegi bat ere badago herrian.

DURANGO
LANDAKO GUNEA
Durangoko herrigunean,
bista ederrekin

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak
Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

XVII. urteurrena

KONTZERTUAK **OTXANDIO :: Ekainak 2**

Arrano Pertxa, Gorpuzkingz, eta Surprais Grup taldeak

Hamazazpi urte bete ditu Otxandioko gaztetxeak, eta urtemuga ospatzeko, kontzertuak antolatu dituzte zapaturako. Kaleko doinuak nagusituko dira eraikin autogestionatuan. Alde batetik, Arrano Pertxa talde bilbotarrak rap kontzertua eskainiko du. Bestalde, Gorpuzkingzeko kideek 'eusko trap' doinuak ekarriko dituzte Hondarribitik. Surprais Grup taldea ere arituko da. 22:30ean hasiko da festa, eta sarrera borondatezkoa izango da.

Ekainaren 1ean

MALLABIA dantza
Dantzen erakusketa Gazte Alai taldeagaz eta meriendatxoa, 17:00etan, plazan.

DURANGO kirola
Esku pilota eskolako haurren txapelketa, 18:30ean, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan.

DURANGO kirola
'IX. Peter Memoriala' jaialdiko finalerdiak, 19:30ean, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan.

DURANGO musika
'Michael Reloaded' ikuskizuna, 20:00etan, Plateruenean.

Ekainaren 2an

MALLABIA kirola
Tenis txapelketa 6-16 urteko gazteentzat, 11:00etan, plazan.

MAÑARIA ospakizuna
'VII. Piratak eguna' dela-eta, egun osoko egitaraua. Haurrentzako puzgarriak, 11:30ean, **elektrotxaranga**, 12:00etan, **bazkari herrikoia**, 14:30ean, **pultsu txapelketa**, 17:00etan, **kontzertuak (Sermond´s, The Wilsons, Suzio 13 eta Storm)**, 21:00etan, plazan

DURANGO deialdia
'Gorka Fraile, berandu baino lehen etxera!' eguna. **Standa Banda haurrentzako ikuskizuna,** 11:30ean, **mosaikoa Santa Anan, eta, ostean, triki poteoa Alde Zaharretik,** 13:00etan, **bazkari herrikoia Plateruenean**, 14:30ean, **Anje Duhalderen kontzertua; ondoren, poteo musikatua Alde Zaharretik,** 17:00etan frontoian.

MALLABIA dantza
Briska txapelketa eta txokolatada, 17:00etan, frontoian.

DURANGO kirola
XVII. Zesta punta txapelketako finalaurrekoak, 18:00etan, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan.

MALLABIA musika
Standa Banda taldeagaz erromeria umeentzat, 19:00etan, parkean.

DURANGO dantzak
XXXV. Euskal Dantzen Jaialdia Zuberoako Muskildigaz eta Tronperri dantza taldeagaz, 19:30ean, Andra Mariko elizpean.

DURANGO musika
Kontzertua Karrantzako eta Zornotzako abesbatzekin eta Durangoko Orfeoiagaz, 20:15ean, Santa Anan.

ELORRIO bertsolaritza
Durangaldeko V. Kopla Txapelketa, 22:00etan, gaztetxean.

Ekainaren 3an

DURANGO literatura
Julene Azpeitia ipuin, olerki eta bertso lehiaketako sari banaketa, 12:00etan, Plateruenean.

Mallabia azoka
Nekazaritza eta artisautza azoka, erleen erakusketa, kandelen tailerra eta Carlos Perezi omenaldia, 10:00etan, frontoian.

ELORRIO deialdia
Raid, eta ostean, bazkaria partaideentzat, 09:30ean, plazan.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Ekainaren 4an

ZORNOTZA zinema
Zinemaldi afrikarra, 18:00etan, Zelaietako Auditoriumean.

Ekainaren 5ean

DURANGO hitzaldia
'Zure telefonorako apps interesgarriak' hitzaldia, Mikel Agirregabiriaren eskutik, 18:15ean, nagusien zentroan.

Ekainaren 6an

ZALDIBAR deialdia
Aurrekontu parte-hartzaileen lehenbiziko saioa, 18:00etan, liburutegi zaharrean.

Ekainaren 4tik 10era

ZORNOTZA erakusketa
'Afrika 2030' erakusketa, Zelaieta erakusketa gelan.

Ekainaren 18ra arte

IURRETA lehiaketa
Jaietako gaztetxoen kartel lehiaketa (6-12 urte bitartekoentzat), lanak Ibarretxe Kultur Etxean aurkeztu beharko dira.

Zinema

:: Durango
ZUGAZA

· ***Basada en Hechos Reales***
barikua 1: 19:30/22:00
zapatua 2: 19:30/22:30
domeka 3: 19:30/21:30
astelehena 4: 18:00/21:00
martitzena 5: 20:00
eguaztena 6: 20:00

· ***El Intercambio***
barikua 1: 19:30/22:00
zapatua 2: 17:00/19:30/22:30
domeka 3: 17:30/19:30/21:30
astelehena 4: 18:30/21:00
martitzena 5: 20:00
eguaztena 6: 20:00

· ***Maria By Callas***
barikua 1: 19:30
zapatua 2: 19:00
domeka 3: 20:30
astelehena 4: 18:30
martitzena 5: 20:00
eguaztena 6: 20:00

· ***2001 Una Odisea Del Espacio***
barikua 1: 21:30
zapatua 2: 21:30
domeka 3: 17:30
astelehena 4: 20:30

:: Elorrio
ARRIOLA

· ***Campeones***
zapatua 2: 22:00
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:00

:: Zornotza
ARETOA

· ***Han Solo***
zapatua 2: 19:30/22:00
domeka 3: 20:00
astelehena 4: 20:15

"Liburu honetan, protagonistak duen askapen prozesua nire pintzeladekin kontatu gura nuen"

Iraia Okinak eta Antxiñe Mendizabalek 'Emakume Burugabea' liburua kaleratu dute; Okinaren ilustrazioekin erakusketa egingo dute Arteka liburu-dendan

Iraia Okina Salazar

Ilustratzailea
Durango | **1980**

ILUSTRAZIOA • ARITZ MALDONADO

'Emakume Burugabea' kaleratu dute berriki Antxiñe Mendizabalek eta Iraia Okinak; Okinak liburuko ilustrazioak marraztu ditu. 2013an urrezko plaka eman zioten Bratislavako ilustrazio erakusketa internazionalean. Horrez gain, Japoniako erakusketa ibiltari baterako aukeratu zituzten bere lanak. Ama izan ostean, ia egunero marrazteko ohitura berrartu du durangarrak.

Nor da 'Emakume Burugabea'?

Emakume Burugabea fikziozko narrazio bat da, nahiko karga poetikoa duena; helduentzat da. Emakume honek bere gorputza okupatzea behar du. Barrura begiratu eta ez du ezer ikusten. Hasieran emakumeak trazu aske moduko bat du, kortse zurrun bat du, eta makillaje moduko bat ere badu; baden baina ez den zerbait erakutsi gura du. Hans Christian Andersenen ipuinaren 'Zapata Gorriak' ipuinari keinu egin gura izan diot, eta zapata takoidun gorri batzuk marraztu dizkiot protagonistari. Hauekin ez du lurrik ukitzen. Oreka galdu eta jausi egiten da. Hor hartzen du kontaktua lurragaz, eta hor hasten da bere askatasunerako prozesua kontatzen. Irudi aldetik, erreprimituriko emakume honek trazu zurrunak ditu, eta liburuan aurrera egin ahala, trazua askeagoa da eta pertsonaiak espresibitatea lortzen du.

Trazuaren garapen hori lortzea izan da erronkarik zailena zuretzat?

Bai, nire lanetan nire ekarpena egitea gura izaten dut, eta ez testuan esaten dena besterik barik azaldu. Protagonistak bizi duen askatasun prozesua azaldu gura nuen nire pintzeladekin. Marrazten dudanean aske izatea gura izaten dut, buruagaz pintatu beharrean, instintiboa izatea atsegin dut. Beti ez dut lortzen, nire mugak ditudalako. Hemen, adibidez, helburua trazu aske bat lortzea zen, ez trazu perfektu bat. Hori izan da erronkarik handiena, zerbait margotu, eta gero larregi ez konpontzea.

Nola gustatzen zaizu behar egitea?

Denbora aldetik, askatasuna edukitzea gustatzen zait. Gertatzen zait, halere, ideia bonbardaketa bat eduki eta galtzea ere (barrez). Antxiñe esaldi solte batzuekin etorri zitzaidan, eta horrela hasi nintzen ni irudiak marrazten. Ostean, testua idatzi ahala, egokitzen joan nintzen. Lan egiteko modu hau asko gustatu zait, helbururik eta eperik barik.

Recuencon (Burgos, Espainia) bizi zara. Lotura du horrek lasai lan egiteko aukeraketagaz?

Testuingurua oso garrantzitsua da. Han ez dizu inork ezer markatzen. Hemen, ostera, beste erritmo batean bizi da jendea. Hemen [Durangogatik] ordutegien arabera dago ezarrita errutina. Denboraldiaren arabera iristen zaizkit eskaintzak; orain, adibidez, lan asko dut.

Ze proiektu dituzu esku artean?

Miren Agur Meabegaz album ilustratu bat amaitu dut berriki. Nire irudiak egiteko, denbora gehiago edukitzea gustatuko litzaidake.

Arte eta Historia museoko emakumeen erakusketa kolektiboan parte hartu zenuen.

> *"Museoko erakusketa kolektiboa ideia ona iruditu zitzaidan, bestelako errealitatea erakusten duelako"*

> *"Denbora eperik barik lan egitea gustatzen zait; kasu honetan horrela izan da, eta oso gustura aritu naiz"*

Primerako ideia iruditu zitzidan. Normalean, gizonezkoen lanak egoten dira erakusketetan. Emakumeok bestelako baldintzak ditugu, amatasuna esate baterako. Niri gertatu zitzaidan. Alaba lehentasuna izatera pasatu zen, eta ez nuen gura izaten datekin lan egin. Lasai egon gura nuen. Orain urtebete berriro sartu zait sortzeko beharrizan hori, eta ia egunero marrazten dut.

Errealitate horiek ezagutzeko aukeraz gain, ondo daude horrelakoak emakume sortzaileon artean ezagutzeko, eta sarea egiteko.

Baduzu beste erakusketarik egiteko asmorik?

Ekainean eta uztailean Arteka liburu-dendan egongo dira ikusgai Emakume Burugabea laneko irudiak [material berezi batean inprimatuta egongo dira]; irudi originalen bat egongo da, ziurrenik.

Mikel Urreizti Arrizabalaga
(Mutriku, 1993)

Lea Artibai Ikastetxeko ikaslea izan zen Mikel Urreizti Arrizabalaga eta Lanbide Heziketako Beroa Sortzeko Instalazioak erdi mailako zikloa egin ondoren Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako zikloa ikasi zuen.

Erdi mailako ziklo bat egin ondoren, goi mailako ziklo bat egin zenuen

Ez zen zaila izan. Adar bereko heziketa izaterakoan erraz egin nuen. Energiaren mundua gustatzen bazaizu, gomendagarria dela uste dut. Iaz erraztasun handiagoa izan nuela uste dut, baina bigarrena ere ez zen zaila izan.

DUAL modalitatean ikasi zenuen. Azaldu zure esperientzia

Bai. DUAL modalitatean egoteak lanerako ateak zabaldu zizkidan. Bigarren urtean pixka bat kostatu zitzaidan erritmoa hartzea, astean bi egun egiten nuen lana eta hiru egunetan eskolara joaten nintzen.

Asteburuetan ere lanean jarduten nuen, eta, beraz, oso asti gutxi nuen ikasketetarako. Gainera, klaseko dinamika erabat aldatu zen lehenengo urteagaz alderatuz, baina ez nuen estutasunik pasatu gainditzeko. Ondo joan ziren ikasketak. Enpresan DUAL sisteman egoteak ere lagundu zidan eta asko ikasi nuen.

Zeintzuk dira zuretzat lanbide heziketa ikastearen onurak?

Onura handiena Lea Artibai Ikastetxeak enpresekin duen harremana da, lan munduan sartzeko aukera asko ematen baitu.

Non zaude lanean, eta zertan?

DUALa Santillan enpresan egin nuen. Oso gustura egon nintzen eta bertan jarraitzen dut lanean. Orain, gas instalakuntzekin ari naiz, berifikazioak, kontagailuak aldatzen, baina lan ezberdin asko egiten ditut, aire girotuagaz, berokuntza sistemekin, suteen aurkako instalakuntzekin.

Hamahiru bertsolarik parte hartuko dute Durangaldeko V. Kopla Txapelketan, Elorrion

Gaztetxean izango da lehiaketa, gune autogestionatuaren 30. urteurrena ospatzeko; 22:00etan hasiko da, eta Ainhoa Urienek eta Amaia Ugaldek jarriko dituzte gaiak

BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO

Lehenbiziko hiru edizioak Plateruenean jokatu eta gero, izaera ibiltaria hartu zuen Durangaldeko Kopla Txapelketak. Horrela, bosgarren edizio hau Elorrion izango da, gaztetxean; aurretik, laugarren txapelketa Otxandion egin zuten, Mekoleta auzoko jaietan. Durangaldeko hamahiru bertsolari jardungo dira saioan: Eneko Abasolo 'Abarkas', Bittor Altube, Txaber Altube, Miren Amuriza, Iruri Altzerreka, Aitor Bizkarra, Eneko Barruetabeña, Aitor Esteban, Manu Goiogana, Unai Iturriaga, Gorka Pagonabarraga, Ander Sarriugarte eta Beñat Ugartetxea. Ainhoa Urienek eta Amaia Ugaldek emandako gaiekin arituko dira bertsotan.

Iaz, Elortzaren eta Amurizaren berdinketa hautsi ezinda, Zabalari eman zioten txapalata

Durangaldeko sei bertsolari igaro dira Bizkaiko Txapelketako udazkeneko fasera

Josu Zabalak jantzi zuen iaz txapalata.

Aurreko lau aldietan bezala, umore ona izango da zapatuko osagai nagusia. Gaztetxearen 30. urteurrena dela-eta, aukera baliatu dute bertan egiteko txapelketa, jai-giroan.

Bertsolariez gainera, zaleek ere edukiko dute protagonismoa, epaimahai ofizialaren faltan euren iritziak erabakiko baitu nork jantziko duen txapalata. Iaz, Mekoletako txapelketan, Miren Amuriza eta Igor Elortza iritsi ziren buruz burukora. Entzuleak izan ziren epaile, baina saiakera bi egin arren, ez zen lortu berdinketa apurtzea. Ondorioz, Josu Zabala musikari eta Mekoletako jai batzordeko kideari eman zioten txapalata. 22:00etan emango diote hasiera saioari.

Udazkeneko fasearen zain

Joan den astean Abadiñon jokatu zen saioaren ostean, amaitu da Bizkaiko Txapelketako udabarriko fasea. Honenbestez, erabakita dago udazkeneko faseko kanporaketetan ze 30 bertsolarik abestuko duten. Durangaldeko sei bertsolarik lortu dute fase horretarako txartela: Aitor Bizkarrak (Udabarriko fasean berak lortu du punturik gehien), Txaber Altubek, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek, Gorka Pagonabarragak, Garikoitz Sarriugartek eta Iker Apraizek. Oihana Bartrak ere abestuko du fase honetan, 2014ko finalista izan zelako.

Durango Euskal Herriko dantzen erakusleiho izango da asteburuan

DANTZA • A.M.

Euskal Herriko dantzen 35. edizioa egingo da asteburu honetan, Durangon, Euskal Jaien baitan. Egun bitan izango dira dantzaldiak, Andra Marian. Bihar, zapatua, izango da lehenbizikoa. Arratsaldean, 19:30ean, Tronperri dantza taldeko kideek eta Zuberoatik datorren Muskildi dantza taldeko kideek dantzaldia eskainiko dute. Domekan, ostera, eguerdian izango da ekitaldia, 12:30ean. Lurra (Urretxu), Indarra (Gasteiz) eta Larraiza (Lizarra) dantza taldeak izango dira ikuskizuneko protagonistak. Talde bakoitzak bere dantzen errepertorioa eskaini ohi du.

35. edizioa izango da aurtengoa.

Geure Durangaldea

Ainhoa Urien Telletxe
Ikaslea

Indiferentzia dosi handi bat

Axolagabekeria berba garbia da bere horretan adierazten duena adierazteko. Berari gertatu ez zaion gauza batek dardararik minimoena ere sortzen ez dion jende-klasea. Kaka egon dadila, baina norberaren jardinetik kanpo.

Pertsonak badu inguratzen duen zirkulu bat, jardin deitzera ere ausartu naizena. Bada, aipatu jende-klase hori, lorategia ondo atondua duenean, konfort egoera batean murgiltzen da, eta bizilagunaren kaka usainaren aurrean bere loreei usain eginez engainatzen ditu sudurzuloak.

Noiz edo noiz, kiratsa jasangaitza denean, agian hurbilduko da jardin biak bereizten dituen itxiturara eta galdetuko dio kortesiazko "zer moduz zaude?" automatiko bat. Galdera egin orduko saihestuko du erantzuna. Baliagarri suertatuko zaio horretarako partzela bien arteko hesia, pasatzen zaila dela esanda justifikatuko da; abila baita jende-klase hau bere burua zuritzen.

Hori bai, txori txikiren batek bere lorategian kaka egin orduko asaldatuko da, berari ere kaka zirina sartuko zaio. Orain, bat-batean, bere jardin zikindu berriari erreparatu eta oihu egiten du tai gabe, eta laguntzen ez dioten guztiak madarikatu ditu. Nola liteke halako egoeraren aurrean zirkinik ez egitea? Galdera hori behin eta berriro errepikatuagatik ez du erantzun asegarririk asmatzen.

Bata bestearen jarraian eraikitako jardindun etxeen segidak axolagabekeriaren irudia ekarri dit burura. Jakina da, eguneroko kontu txikiak direla bizitzaren metafora garbiak.

"Gure benetako jokoa erakusteko gogoagaz berreskuratuko dugu taldea"

Iazko etenaldiaren ostean, bueltan da Elorrioko Buskantza emakumeen areto-futbol taldea. Iraunkorra izango den proiektu bateko zimenduak eraikitzen ari dira

Maialen Bernas Sagarna
Elorrioko Buskantza taldeko jokalaria
Elorrio | **1996**

Elorrio futbol taldean eman zituen lehenengo pausoak eta handik areto-futbol taldera igaro zen.

ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Hurrengo denboraldia historikoa izan daiteke Durangaldeko emakumeen areto-futbolarentzat. Lau talde egon daitezke, inoiz baino gehiago. Durangoko Sasikoari eta Zornotzako Beti Goli talde berri bi gehituko zaizkie, ondo bidean: Durangoko Mendibeltz eta Elorrioko Buskantza. Elorriarrak bueltan dira, iazko etenaldiaren ostean.

Zergatik desagertu zen iaz emakumeen taldea?
Heldu zen une bat motibazioa falta zitzaiguna. Denboraldiak aurrera egin ahala, gero eta jokalari gutxiago geunden eta jarraitu genuenoi aurrera egiteko indarra falta zitzaigun. Hiru jokalari Sasikoa taldera joan ziren eta besteek uztea erabaki zuten, neuk tarteko. Nire ilusioa herriko taldean eta elorriarren aurrean jokatzea zen. Hori barik, gurago utzi.

Areto-futbolaren falta sumatzen duzu?
Asko. Spinning edo horrelako kirolak egin izan ditut, baina ez da berdina. Niretzat beharrizan bat da. Barruan korapilo bat dudanean, bizikletan mugitu barik pedalei eragiteak ez nau lasaitzen. Beste zerbait behar dut. Lagunekin eta taldean egiten den kirola.

Pena eman zizun taldea desagertu zenean?
Pena handia. Horregatik, aurten berreskuratzen saiatu behar nuela esan nion neure buruari. Taldekide izan ginenok berba egin eta berriro elkartzea erabaki genuen. Talde hartako jokalariak batuko gara berriro. Beste berri bi ere bai.

Zer aldatu da iaztik hona?
Barne funtzionamendurako arau batzuk adostu ditugu. Jokalari moduan konpromiso batzuk hartu genituen. Entrenamenduetan eta abar.

Zenbat jokalari zaudete?
Bederatzi bat. Atea zabalik dugu batu gura duten denentzat.

Aurretik esperientzia dutenentzako deialdia da?
Esperientzia dutenentzat zein ez dutenentzat. Herrikoentzat zein herritik kanporakoentzat. Berdin dio. Zenbat eta gehiago, hobeto. Gu irakasteko prest gaude.

Baduzue entrenatzailerik?
Oraindik ez, bila gabiltza. Baditugu izen batzuk buruan. Herriko bat izatea gustatuko litzaiguke. Herria, kluba eta klubeko funtzionamendua ezagutzen dituen norbait. Baina arlo honetan ere atea zabalik dugu eta herritik kanpokoa ere izan daiteke.

Zer helburugaz batuko zarete?
Gure benetako jokoa erakusteko helburuagaz berreskuratuko dugu taldea. Buru-belarri ekiten badiogu, maila ona eskaini dezakegula uste dut. Ikasten jarraitzea gura dugu. Iazko entrenamenduetan gure jarrera ez zen izan onena. Horregatik jarri ditugu arauak. Taldea herrian entzun dadila gura dugu eta jarraikortasun bat izan dezala, ez orain hasi eta bihar amaitu.

> *"Emakumeen lau talde egotea pozgarria litzateke; partidu asko gertu lirateke, derbiak gainera"*

Datorren urtean lau talde izan ditzake eskualdeko emakumeen areto-futbolak. Inoiz baino gehiago.
Albiste pozgarria litzateke, benetan. Partidu asko eskualdean jokatuko genituzke, derbiak gainera.

Gizonen taldearen ibilerei jarraitu diezu aurten?
Ikusi izan ditut partiduak. Ezin izan diote mailari eutsi talde indartsuak egon direlako, baina dena eman dute. Profesional aritu dira eta harro gaude euren lanagaz.

Asteko kirolaria

ANA USABIAGA BALERDI
Ordizia, Txirrindularitza

"Errepidean lehiatzen egon arren, gure helburu nagusiak beti pistan daude"

Durangaldeko Eustrak-Euskadi taldeko Ana Usabiagak Espainiako Kopa irabazi berri du

Durangaldeko Eustrak-Euskadi taldean dabilen Ana Usabiaga txirrindulariak errepideko Espainiako Kopa irabazi zuen joan zen asteburuan. 23 urtez azpiko mailan, berriz, Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldeko Sandra Alonsok lortu zuen garaipena.

Zelan joan da Espainiako Kopa?
Ondo. Pistako Munduko Txapelketaren ostean, atsedenaldi txiki bat hartu nuen eta, egia esan, errepideko nire lehenengo lasterketera, Espainiako Kopara, nahiko berde iritsi nintzen. Emaitzak oso onak izan ziren arren, fisikoki kostatu egin zitzaidan. Baina, asteek aurrera egin ahala, gero eta hobeto ikusi dut neure burua, eta lehenengo karreretan lortu nuen abantailari eusteko gai izan naiz.

Azken lasterketan eroriko bat izan zenuen arren, seigarren postuan amaitzea lortu zenuen.
Errepidea oso gaizki zegoen, urak hartuta, putzuz beteta. Halako batean, ur baltsa bat pasatu genuen. Aurreko gurpilak irrist egin, eta lurrera jausi nintzen. Baina segituan altxatzea lortu eta Ireneren —ahizpa— laguntzagaz tropelean sartu nintzen.

Taldekide bakarra ondoan duzula, Movistarri eta beste talde handiei irabazi diezue.
Guretzat oso pozgarria da hori. Horrelako talde handiekin lehian aritzea oso zaila da. Lasterketa guztietan hamar-hamabost txirrindulari izaten dituzte, eta beraientzat errazagoa da ihesaldi onak hartzea, tropeletik tiratzen jartzea... Alde horretan, gu oso mugatuta gaude. Lasterketetan, bihotza bero izaten dugu, baina halakoetan burua hotz izaten saiatzen gara, momentu egokietan erabaki onak hartzeko.

Abuztu amaieran, pistako Europako Txapelketa izango duzue. Dagoeneko horretan zentratuta zaude?
Errepidean lehiatzen egon arren, gure helburu nagusiak beti pistan daude. Errepideko lasterketa hauek entrenamendu gogorrak egiteko erabiltzen ditugu. Orain bidaia batzuk egingo ditugu, pistan lehiatu behar dugulako, eta baita Munduko Kopan egoteko aukera izateko ere. Gainera, Munduko Txapelketan berriro egotea dut helburu.

Iurretakoren historiako denboraldirik onenean, Hirugarren Mailara igotzeko borrokatuko dira

Ohorezko Mailako futbol liga bigarren tokian amaitu izanak igoera fasea jokatzeko eskubidea ematen die, eta Arabako eta Gipuzkoako talde banaren aurka arituko dira; Iurretako taldea sekula ez da Hirugarren Mailatik hain gertu egon

FUTBOLA • **JOSEBA DERTEANO**

Denboraldi historikoa izaten ari da Iurretako futbol taldearentzat. Hirugarren Mailarako igoera fasera sailkatu izana nobedadea da klubaren ibilbidean, baina ez daude konformatzeko prest. "Denboraldi historikoa izaten ari da guretzat eta borrokan jarraitzeko gogotsu gaude", adierazi du Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak, datozen asteetan Gipuzkoako eta Arabako talde banaren kontra jokatuko dituzten partiduen atarian.

Ekainaren 3ko lehen jardunaldian Gipuzkoako Ordizia eta Arabako Ariznabarra taldeek elkarren kontra jokatuko dute. Hurrengo partidu bietan sartuko da jokoan Iurretako. Ekainaren 10ean Ordizia hartuko du etxean, eta ekainaren 17an Arabara joango da.

Oraindik ez dago jakiterik hiru talde horietatik baten bat igo daitekeen ala ez. Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igotzea lortzen duten euskal taldeen araberakoa hori. Durangoko Kulturala, Alaves B eta Portugalete dabiltza borroka horretan. Beraz, Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara zenbat euskal talde igo, beste hainbeste igoko dira Bizkaiko liga nagusitik Euskadikora.

Denboraldiko zati luzean lider egon da Iurretako. Esaterako, otsaileko talderik onena izan zen. Inoiz baino gol gehiago sartu dituzte gainera: 52 guztira. Zaleak taldeagaz bat eginda egon dira. "Ligako azken partiduan autobusa zalez beteta joan zen Sondikara. Kotxez ere joan ziren asko, euren kontura. Eskaini diguten laguntza eskertu gura diegu", dio taldeko entrenatzaile Vazquezek.

Iurretako klubarentzat historia egiten ari den aurtengo taldea.

Sekulebedarrak mendi proba antolatu du domekarako

Lasterketak 7,6 kilometro eta 600 metroko desnibel positiboa ditu; izen-ematea egunean bertan egin daiteke

MENDI LASTERKETA • **J.D.**

Abadiñoko Sekulebedarra kirol klubak Serafin Amezua 'Txaraka'-ren oroimenezko mendi lasterketa antolatu du domekarako. 7,6 kilometrotan 600 metroko desnibel positiboari aurre egingo diote parte-hartzaileek.

Mendi lasterketa 10:45ean hasiko da. Gura duenak mendi martxa egin dezake, ordu erdi lehenago hasita. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, probak hasi baino ordu laurden lehenagora arte. Martxarako izen-ematea 6 euro da, eta lasterketarakoa, 10 euro.

Gizonik eta emakumerik onenek 50 euro eta garaikurra jasoko dituzte. Bigarrenek eta hirugarrenek 30 eta 15 euro irabaziko dituzte, hurrenez hurren. Parte-hartzaile denentzat kamisetak eta opariak egongo dira, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Ane Grande Euskadiko txapeldunorde geratu da gimnasia erritmikoan

GIMNASIA ERRITMIKOA • **J.D.**

Durangoko Landako kiroldegian gimnasia erritmikoko Euskadiko Txapelketa jokatu da amateur mailan, eta Uztai taldeak emaitza bikainak lortu ditu. Seniorretan Sara Sendinok, Ane Tranchok, Meritxell Mardarasek, Ainara Ruedak eta Julene Grandek osatutako taldea txapeldun geratu zen. Gazte mailan, Uztai taldeko Ane Grande txapeldunorde geratu zen aparatuko ariketari esker.

Durangoko Kulturalak Madrilen jokatuko du igoera faseko partidua, domekan

FUTBOLA • **J.D.**

Durangoko Kulturalak ez du Bigarren B Mailara igotzerik lortu lehenengo aukeran. Gaztela-Mantxako Conquense taldeak eragotzi dio. Hala ere, oraindik baditu aukerak. Ligako txapeldun geratu izanaren abantaila da. Asteleheneko zozketan Madrilgo Alcala taldea egokitu zitzaion. Joaneko neurketa domekan jokatuko du, 12:00etan, Madrilen. Itzuliko partidua hurrengo asteburuan, Tabiran.

Adituaren txokoa

Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi lasterketa

Maila gorena Zegaman

Azken urteetan bezala, aurten ere sekulako ikusmina sortu du Zegama-Aizkorri mendi maratoiak. 8.000 korrikalarik baino gehiagok eman zuten izena parte hartzeko zozketan, eta horietatik 225ek baino ez dute lortu dortsal preziatua. Gainerako dortsalak babesleen, gonbidatuen eta azken urte bietan denborarik onena egin dutenen artean banatu dira. Guztira, 550 bat lagun irteera puntuan.

Aurten, gainera, Munduko Kopako lasterketa izateaz gain Salomon markak antolaturiko Golden Trail Series izeneko zirkuituan ere sartu dute, eta, ondorioz, munduko korrikalaririk onenak agertu dira Zegamako plazan. Eta tartean, gu! Itzela!

Iazko edizioarekin alderatuta, lokatza eta hezetasuna izan dira nagusi aurtengoan eta hori ondo nabaritu da korrikalarien denboretan. Hezetasunak deshidratazioa dakar, eta askok polito sufritu dute karranpak direla eta. Aurten ez da errekorrik izan (ikusle kopuruarena salbu) eta iaz punta-puntan ibili ziren lasterkari asko nahiko atzerago ibili dira, eguraldiaren arabera asko aldatzen baita ibilbidea.

Maila gorena aurten Zegaman, baina korrikalari herrikoi langile asko ere bai munduko onenekin batera. Benetan goraipatzekoa da zortzi orduko lanaldiaren ostean (askotan errelebo-ka fabrikan) entrenatzera doan korrikalariaren esfortzua, gero Zegamako dortsala ipini eta maratoia amaitzen duenarena. Gurean Erlantz Zaldunbide iurretarra da adibiderik argiena. Zapatu arratsaldean zortzi ordu lanean zutik, domekan maratoi bikaina egin, eta domeka gauean bertan berriro lanera. Hori bai marka! Txapela kentzeko modukoa!

TABIRA
Eguneko zentroa eta Egoitza
gerentzia berria
Intxaurrondo, 27 DURANGO
944 668 852 / 690 622 499

Hartu atsedenalditxo bat
www.cuidamosdetusmayores.com
· Zaintza eta zerbitzua adindunei ·
· Prebentzio Sanitario, Psikologiko eta Fisioterapeutiko handia ·
· Ile-apainketa eta podologia zerbitzua ·
· Aisialdia eta eguneko ibilaldiak ·
· Terapia okupazionala ·
· Aldi baterako egonaldiak ·
· Herriguneko instalazioak ongi komunikatuta ·
· Zaintzailearen atsedena ·
· Lan talde bikaina ·

AMBOTO INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 600€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Laubideta kalean. Pare gabeko pisua, 3 logela, komun bi, sukaldea, egongela, izugarrizko terraza 200 m2 koa, garaje bi, ganbara eta trastelekua.

DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.

DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea

BERRIZ. Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bateraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAKETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA. Izugarrizko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalakalokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

ETXETXO G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

//AUKERA

IBAIZABAL. Apartamentua. Ia-berria. Ganabra handia velux-arekin eta garajea.199.000€

IURRETA. Dena berria. 2 logela. bainugela, sukaldea, egongela-jangela eta terraza. 120.000€

F.J. ZUMARRAGA. 4 logela, bainugela, egongela eta sukaldea. 135.000€

SAN IGNACIO. 104m. 3 logela, 2 bainugela, sukalde-jangela, egongela. Ganabra eta garajea. 260.000€.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

ANTSO EZTEGIZ. 90m. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. 155.000€.

ANDRA MARI. Erdigunean. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, galeria eta trastelekua. 125.000 €

J. ICIAR. 3 Hab. baño. Cocina. Salon. Terraza. Soleado. Todo Exterior.125.000€

ASK. ETORBIDEA: 2 logela.(lehen 3 logela) bainugela, sukalde-jangela, egongela eta terraza. 177.000€

M.TORRE. Pisu altua 3 logela, 2 bainugela, dulafea, esekitokia, egongela eta terraza. Ganabra eta garajea.

KANPATORROSTETA. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, terraza handia. Egongela balkoiarekin, ganbara. Eguzkitsua. 238.400 €

MATIENA. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza, igogailua. Eguzkitsua. 130.000€

MATIENA. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. 79.600€

ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. 129.000€

DURANGO. 4 logela. Egongela. Sukaldea. Dena kanpora begira, berriztatua. 129.000 €

DURANGO. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela. Dena kanpora begira.95.000€

BERRIZ. 3 logela, bainugela, sukaldea, eongela eta terraza. 65.000€

ZALDIBAR. 2 eta 3 logela. Eguzkitsua. Dena kanpora begir. Berriztatua. 99.000€

F.J.Zumarraga 130m. 3 logela.(Printzipala doblea.) 2 logela. Sukalde-jangela, egongela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia 2 kotxentzat eta trastelekua (aukeran). 285.000€

LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. ORAIN 206.000 €

ASK. ETORBIDEA. Ia-berria. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, ganbara. GARAJEA. Terraza 66m2.

IURRETA. 2 Logela, bainugela, sukaldea. egoengela-jangela, berogailua. 114.000€

LANDAKO (TXIBITENA).100m2. 4 logela, 2 bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela handia. Ganabra. Garajea. Dena kanpora begira.203.000 €

MADALENA. Duplexa egiteko aukera. Azken solairua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitokia. Egongela. Garajea. ORAIN: 260.000€

SAN IGNACIO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eskeitokiarekin, egongela terrazarekin, trastelekua eta garajea. Soalrium eta IGERILEKUA. 235.000€

J.A. AGIRRE. Azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela terrazarekin eta 2 ganabra. Garajea.

BERRIZ. Txalet adosatua. 4 logela, 4 bainugela, egonegela terrazarekin. Sukalde handia. Garajea eta txokoa. 410.000 €

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN

ARTEKALE: 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. 94.000 € negoziagarria.

LOCAL INVERSION. 50m2. Egokitua. 85.000€.

DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2.138.000 €

ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.

F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA 150.000 € (Negociable)

IBAIZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. 500 €.

ASK. ETORBIDEA. Garaje itxia. 18.800€

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com

LANDAKO ETORBIDEA: 80 m2.2 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 binugela, balkoia. Ganbara handia eta garajea. C.E.E:D

250.000€



MONTEVIDEO: 94 m2. Guztiz berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela.

219.000€



ASKATASUN ETORBIDEA: 68,88 m2 . 2 logela (lehen 3) egongela, sukalde-jangela, bainugela eta balkoia.Berogailua, igogailua.

117.000€/Neg

GOIENKALE: 66,56 m2. 3 logela, bat berriztatuta, bainugela jarrita eta berriztatua, sukaldea jarrita eta berriztatua eta egongela. Ganbara.

149.000€

IURRETA- MASPE 70 m2.3 logela, hall, egongela, bainugela eta komuna, terraza. Pisu altua eta egizkitsua. Berriztatzeko

128.000€

KALEBARRIA: 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta berogailua gas naturalarekin. E.E.Z.:F.

125.000€ / NEG.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

Komentu kalea 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **255.000€** +BEZatik aurrera.

255.000€

//DURANGO

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela 126.300 € / E.E.Z= G

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia 210.000 € / E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta balkoia 205.000 € / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F

KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela eta ganbara. 175.000euro/E.E.Z=F

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi eta garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, komuna, garajea eta ganbara Lehen 270.000€ Orain 260.000 € / E.E.Z= E

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta trastelekua 290.000 € / E.E.Z=E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, trastelekua eta garajea. Lehen 275.000 €/ Orain 260.000 € / E.E.Z=E

SANTASUSANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, ganbara eta garajea 240.000 € / E.E.Z=E

SASIKOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta ganbara 220.000 € / E.E.Z=G

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. 150.000 € / E.E.Z Bidean

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela eta garajea. 695.000 € / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. 170.000 € / E.E.Z Bidean

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. 175.000 € / E.E.Z=E

FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta garajea. Lehen 190.000 €/ Orain 175.000 € E.E.Z=G

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

//BERRIZ

ANDIKONA AUZOA Berreraikitzeko baserria, 460.000€

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia 120.000 € / E.E.Z= F

ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera 142.000 € / E.E.Z= G

//ELORRIO

ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela 199.000 € / E.E.Z= E Garaje itxia aukeran.

LABAKUA KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi eta despentsa 198.000 € / E.E.Z= F

SAN PÍO Logela 1, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta igogailua 179.900€/ E.E.Z =G.

//OTXANDIO

GOMILAZ AUZOA Baserria: Jatetxe eta etxebizitza 5 hektareako lurzoruagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G

GONBILAZ AUZOA Baserria, 350.000€

//BERRIAK

DURANGO. ANBROSIO MEABE 3 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia 270.000/E.E.Z=F

JUAN MARI ALTUNA 2 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela, igogailua trasteleku 1, kamarotea eta garajea 225.000/E.E.Z=E

Botikak

BARIKUA, 1 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA 2 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurrondo 22. - **DURANGO**

ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 3 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrondo 22. - **DURANGO**

GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 4 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 5 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 6 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 7 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO LUIS Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Izar (721. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Joan zen astean mutil handi honek 5 urte egin zituen! Muak eta esku bete tirakada belarrietatik. Ondo pasau eta disfrutau lagunekin eta etxekoekin. Mosu handi bat, Izei, amaren eta maite zaitugun danon partez.

Barikuan Astarloa egoitzako egoileak Zelai Alai hipikan egon ziren egun pasa. Oso ondo pasatu zuten. Zorionak danori! Aupa gure gazteak!

Zorionak, **Irantzu**, zure urtebetetzean. Musu handi bat Oierren, zure senarraren eta gurasoen partez.



Zorionak, **Araia**, zure bigarren urtebetetzean. Jarraittu zure sorginkerixekin gure bizitzak alaitzen. Patxo erraldoi bat etxeko guztien partez!

Zorionak, **Iker**! Konturatu orduko 10 urte beteko dituzu. Musu potolo bat etxeko guztion partez. Zorionak, krak!

Eguraldia

ZAPATUA	26° / 14°
DOMEKA	24° / 15°
ASTELEHENA	23° / 11°
MARTITZENA	22° / 13°
EGUAZTENA	22° / 13°
EGUENA	24° / 13°
BARIKUE	23° / 15°

Eskelak

Jose Ellakuriaga Gandarias

Irribarre ein deigun
zutaz oroitzen
badekozu lekue
gure bihotzien

Zure lobak

Jose Ellakuriaga Gandarias

"Nekez uzten du bere sorterria sustraiak han dituenak"

Alabaren eta semeen lagunak

“Entrenatzaile alemaniar eta italiarrak ditut gustuko, diziplina eskatzen dutenak”

Manu Beltranek Athleticen 43 kamiseta ditu, momentuz. Talde zuri-gorria bihotzean darama, eta kamisetarik kutunenak Ustaritz eta Iturraspe herrikideenak direla aitortu du

Manu Beltran Peña

Athleticzalea

Abadiño | 1964

AKUILUA • JONE GUENETXEA

Iñigo Martinez Athleticeko jokalariaren kamiseta jantzita etorri da Manu Beltran elkarrizketara. Athleticzale eta Bilbao Basketen jarraitzaile sutsu honi denboraldi honek ez dio poztasun handirik eman.

Oso Athleticzalea ei zara. Denboraldi honetan sufritu egin duzu?

Irabazita ere beti sufritzen dugu. Baina denboraldi honetan hondoko itsaso handia izan dugu. Emaitza txarrak, lesionatu asko, denboraldia azkar hasi izana... Vocento taldeak ere Athleticeko zuzendaritzaren kontrako kanpaina egin du.

Cuco joan da. Erabaki ona izan da?

25eko lan talde batetik eta talde teknikotik merkeagoa da bat botatzea 25 baino. Baina ez dut uste egoeraren arduradun bakarra denik. Jokalari askok ere ez dute maila eman. Denboraldi amaieran gaude eta jokalari batzuek ez dute izerdirik bota. Aritz Adurizek eta Rulok [Raul Gartzia] adin bat dute eta sasoia hartzea gehiago kostatzen zaie.

Zein entrenatzaile ekarriko zenuke?

Heynckes ekarriko nuke, baina jubilatu egiten da. Niri entrenatzaile alemaniar eta italiarrak gustatzen zaizkit, diziplina handia eskatzen dutenak. Berba egiten dutenean, esan beharreko guztia esaten dute. Hegoamerikarrek berba asko egiten dute, baina ezer ez esateko. Eduardo Berizzo ekarri dute, eta zorterik onena opa diot. Baina nik Clemente, Heynckes, Caparrós edota Luis Fernandez ekarriko nuke.

Athleticeko historian zein entrenatzailegaz geratzen zara?

Clemente, Heynckes eta Valverdegaz. Bestalde, Barçak Txingurri gura ez badu, datorrela gurera. Langilea, etxekoa eta profesionala da. Oso ondo ezagutzen du taldea.

Zein partidu gogoratzen duzu gehien?

Athletic-Lech Poznan, 1984ko Europako Kopan. 2-0 galdu genuen Polonian, eta hemen 4-0 irabazi genuen. San Mameseko partidua gogoangarria izan zen. Inoiz ikusi dudan onena. Gainera, partidu honen aurretik, Goikoetxeari 18 partiduko zigorra ezarri zioten Maradona lesionatzearren.

Kamiseta piloa ei duzu.

Athleticen 43 kamiseta ditut, azkena Iñigo Martinezena.

Fitxaketa horrek polemika sortu du.

Ez dut ulertzen zergatik. Griezmann badoa, eta ez du inork ezer esaten. Ilarramendigaz, berdin. Baina gurera datorrenagaz, bai. Athletic txarren tratatzen duten zelaia da. 80ko hamarkadako egunkarietako albisteak gordeta ditut, eta Athleticen kexak agertzen dira sasoi hartako Atotxan jasotako tratuagatik. Beraz, hau aspalditik dator.

Urtero erosten duzu kamisetaren bat?

Normalean urtero erosten dut bat, bai, baina badaude urteak lau erosi ditudanak, gustuko ditudalako. Jokalariek emandako kamisetak ere badauzkat. Imanol Etxebarria atezainarena daukat. Iraolaren 2004ko UEFAko Trabzonsporren kontrako partidukoa ere badaukat. Solabarrietarena, Arriagarena... Baina ilusiorik gehien egiten didatenak Ustaritzena eta Iturrasperena dira, nire moduan, abadiñarrak direlako. Etxekoak dira eta balio horiek ezin ditugu galdu.

“Ketchuparen kamiseta” ere baduzu?

Bai, jakina. Hori ez zen ohiko kamiseta bat. Europan erabiltzeko atera zuten. Hiru partidu jokatu zituzten horregaz. Polemika sortu zuen, baina orain enkantean erostera bazoaz, garestiena da. Kamiseta hori artelana da eta hiru museotan dago. Nik bi dauzkat, eta ez nituzke ezergatik ere salduko.

Athleticen historiatik zein jokalari azpimarratuko zenuke?

San Mamesera joan nintzen lehenengo aldian, 1976an, Athletic-Hercules ikustera joan nintzen. 11 urte izango nituen. Txopoaren [Jose Angel Iribar] irudia, beltzez jantzita, ahaztezina da. Bestalde, sasoi berri bat markatu zuena eta gazteak partiduak ikustera erakarri zituena Julen Guerrero izan zen. Beste sasoi batzuetan ere jokalari gogoangarriak izan ditugu, Karmelo Cedrun, esaterako, baina nik ez ditut jokatzen ikusi.

Eta nesken taldeari jarraitzen diozu?

Bai, jakina. Nesken partiduak ikustera joatera animatzen dut jendea. Gehienek ez dakite Athleticeko nesken partidu batgaz zenbat gozatu daitekeen. Talde guztiek kanpoko jokalariak ekartzen dituzte eta lehia handia dute, baina aurten hirugarren amaitu dugu. Ligak eta kopak irabazi ditugu.

Imanol Exeberriaren peñagaz jarraitzen duzue?

Bai. 1997tik peñaren egoitza Anboto tabernan dugu. 1994an Kulturalera etorri zen, eta harrezkero ezagutzen dut. Imanol oso pertsona ona da.

Laukortza

Mikel Uriguena Ruiz
Irakaslea

Durango 2031

Elene eta Irati institutuko atzeko atetik atera dira. Bata bizikleta gainean eta bestea bere patinetearekin, kalea gurutzatu eta parkean sartu dira. Lagunekin geratu dira skate parkean arratsaldea emateko. Negu gogorraren ondoren maiatzeko egun eguzkitsuak aprobetxatu nahi dituzte. Aurten hasi dira biak DBHn eta azterketak gainean dituzte, baina gurasoak etxera heldu aurretik badute oraindik tarterik.

Iratiri ez zaio skatearena bereziki interesatzen eta tarte baten lagunekin berba egin ostean, ondoan dagoen Kultur Etxera abiatu da, Julenekin batera, udalekuei buruzko bilerara joateko. Atean bere ahizparekin egin du topo. Han dago, gelako pare bat neskekin. Dirudienez, historiako irakasleak Gerra Zibilari buruzko lana agindu die eta Durangoko Bonbardaketa aukeratu dute. Martxoak 31 dokumentazio gunetik beharrezko informazioa atera nahi dute. Baina ez dirudi oso langile daudenik. Euretako batek parkeko laku ingurura joateko proposamena egin die besteei, eguzkia hartzeko beharra daukala-eta. Gainontzekoek, Iratiren ahizpak barne, ez dute zalantzarik izan.

Iratiren ama, Eleneren aita eta historiako irakaslea ur ertzeko tabernako terrazan daude. Astelehenetan hartzen dute kafea han. Amari ez dio grazia berezirik egin alaba nagusia alferkeriatan ikustea. Irakasleak, berriz, barre egin du. Hala ere, kafe baten aurrean eta arbolapean atsekabeek ez dirudite hain larriak. Eskerrak Irati eta Elene jaio ziren urtean durangarrek parkearen aldeko apustua egin zuten.